

2009. urteko txostena



GIZATASUNA
LANEAN

MONDRAGON

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

Gure Korporazioa 1956an hasitako mugimendu kooperatiboaren fruitua da, izan ere, urte hartan sortu zen lehen industria kooperatiboa Gipuzkoako Arrasate herrian. Korporazioaren enpresa filosofia bere Balio Korporatiboetan jasota dago.

- Lankidetzeta.
- Parte hartzea.
- Erantzukizun soziala.
- Berrikuntza.

Korporazioaren Misioak nazioarteko merkatuetan lehiatzen den enpresa erakunde baten oinarritzko helburuak biltzen ditu, bere erakunde sozietarioan metodo demokratikoak erabiliz, enplegua sortuz, langileen giza eta lanbide sustapena bultzatuz eta inguru sozialean garapena sustatzeko konpromisoa hartuz.

Antolakuntzari dagokionez, lau arlotan egituratuta dago: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza, eta gaur egun lehenengo euskal enpresa taldea da, eta Espainiako zazpigarrena.

Gestioaren Bikaintasunari egindako aitortpenak	4
Oinarrizko datuak	5
Lehendakariaren mezua	6
Arloak: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza	9
Finantza arloa	10
Euskadiko Kutxa	11
Lagun-Aro, BGAE	13
Lagun-Aro Aseguruak	14
Industria arloa	16
Kontsumo ondasunak	18
Ekipo ondasunak	20
Industria osagaiak	23
Eraikuntza	25
Enpresa zerbitzuak	28
Banaketa arloa	31
Ezagutza arloa	34
Prestakuntza	40
Egoera orri ekonomikoak eta ondareari buruzkoak	45
Iraunkortasun txostena	51
Antolamendu egitura / Organo sozialak eta zuzendaritzakoak	69
Enpresen zerrenda	73

Gestioaren Bikaintasunari egindako aitortpenak

2008ko abenduaren 31n, hauxe zen Enpresa Kalitateari eta Bikaintasunari lotutako aitortpenen, ziurtagirien eta sarien multzoa:

- 1 Europako EFQM Sarirako finalista**, Fagor Egoketak lortua.
- 1 Europako Ingurumen Sari bat**, Orklik lortua.
- 8 Urrezko Q**: Euskadiko Kutxa, Copreci, Fagor Industrial, Fagor Etxetresna Txikiak, Eroskiren Produktu Freskoen Zorrotzako Plataforma, MONDRAGON Lingua, Txorierrri Politeknika Ikastegia eta Lagun Aro Aseguruak.
- 18 Zilarrezko Q**: Auzo Lagun, Eroskiren Zorrotzako, Elorrioko, Aguraingo eta Zorrotzako Plataformak, Eteo, Fagor Electronica, Fagor Konfort Etxetresna Elektrokoak, Fagor Garbiketa Etxetresna Elektrokoak, Fagor Altzariak Etxetresna Elektrokoak, Geysler Gastech, Lea Artibai Ikastetxea, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Orkli, Soraluze, Ulma Packaging, Ulma Forja, Ulma Handling eta Eroski Bidaiak.
- 4 izen-emate EMASen**: Danobat, Fagor Ederlan, Maier eta FPK.
- 108 ISO 9000 Ziurtagiri.**
- 54 ISO 14001 Ingurumen Ziurtagiri.**
- 16 OHSAS Ziurtagiri**, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Sistemiei lotutakoak.
- 1 Erantzukizun Sozialari buruzko SA 8000 Ziurtagiri bat**, Eroskik lortua.



Oinarrizko datuak

	Milioi euro		
Enpresa garapena	2008	2009	Aldea (%)
Aktibo osoa	33.499	33.334	-0,5
Baliabide propioak	4.261	4.284	0,5
Emaidza bateratuak	71	61	-14,2
Euskadiko Kutzaren bezero gordailuak	17.576	18.614	5,9
Lagun-Aroren ondare funtsa	3.815	4.210	10,4
Diru sarrerak guztira	16.770	14.780	-11,9
Salmentak guztira (Industria eta Banaketa)	15.584	13.819	-11,3
Inbertsioak guztira	1.324	378	-71,5
Enplegua			
Lanpostuak batez beste	92.773	85.066	-8,3
Industri arloko kooperatibetako plantillarekiko bazkideen %	83,0	88,1	6,1
Kooperatibetako plantillan dagoen emakume bazkideen %	43,5	43,7	0,5
Industri arloko intzidentzia edo ezbehar indizea	45,5	38,8	-14,7
Parte hartzea			
Bazkide langileen kapital soziala	2.178	2.161	-0,8
Bazkide langileen kopurua Gobernu Organoetan	891	904	1,5
Elkartasuna			
Jarduera sozialetara bideratutako baliabideak	35	22	-37,1
Ikastetxeetako ikasle kopurua	7.311	8.567	17
Ingurumen gestio arduratsua			
Indarrean dauden ISO 14000 ziurtagirien kopurua	53	54	1,9
Indarrean dauden EMAS ziurtagirien kopurua	4	5	25
Etorkizunerako apustua			
I+Gra bideratutako baliabideen %, Ind. Arl. Balio erantsiarekiko	7,1	8,1	14,1
Teknologia zentroen eta I+Gko unitateen kopurua	12	12	-



Lehendakariaren mezua

Urte hasieran 2009an ekonomiak izango zuen bilakaerari buruzko izenburu bat aukeratu ahal izan banu, "Ekonomiak oztopoak gainditu ditu eta hazten hasi da berriro", edo halako zerbait hautatuko nuen. Nik neuk hala izatea nahi. Baina errealitatea oso bestelakoa izan da. Ekitaldiaren ezaugarriak nabarmenena atzeraldi ekonomikoa biziagotu izana da, izan ere, atzeraldia azken 80 urteotako handiena eta orokorra izan da, ia-ia jarduera sektore guztiei eragin diena. Globala den egoera hori are larriagoa izan da Espainian, higiezinaren sektorea erori egin baita eta horrek, beste faktore batzuekin interakzioan, jardueraren moteltzea handitu du eta aurrekaririk gabeko agertoki ezinago konplexu bat planteatu du.

Horri guztiari gehitu behar zaio balioen krisi aski nabarmena, non balio batzuk gainbehera datozen -erantzukizuna, ondo egindako lana, ahalegina, elkartzasuna, aurrerapen kolektiboa...-; materialistagoak diren beste balio batzuk, berriz, gure artean instalatu dira eta gure eguneroko balioen paisaiaren osagai bihurtu dira. Horri gehitzen badiogu merkatuetan, buruzagi politikoengan edo erakundeetan jarritako konfiantzaren galera, datozen urteetarako panorama ez da oso itxaropentsua. Nolanahi ere den, aurrera egin beharra dago eta minutuz minutu lanean jarraitu, pentsatuz tunel honen irteera, hein handi batean, gure sakrifikatzeko, lan egiteko eta jardunean sormena txertatzeko daukagun ahalmenaren mende dagoela.

Adituek dagoeneko iragarri dute mendebaldeko ekonomiek susperraldi txikia izango dutela 2010ean zehar.

Izan ere, dagoeneko hazkunde positibo txikiak izaten ari dira herrialde batzuetan, baina oraindik ez da gauza ziuerra pultsu ekonomikoari eusteko gai izango ote garen, kontuan izanik gobernuek beren baliabideen zati handi bat erabili dutela jadanik.

Testuinguru honetan, MONDRAGON Korporazioaren emaitzetan islatu egin da zailtasun bereziko aldi hau baina, era berean, gure negozioaren sendotasuna eta trinkotasuna ere agerian geratu da, errentagarritasun globala positiboa izan baita.

Diru sarrerak, guztira, 14.780 milioi euro izan dira, eta mozkinak 61 milioi euro. Datu horiek aurreko ekitaldiarekiko atzerakada islatzen dute, baina gure lehiakideekiko posizioari eta merkatu kuotari eustea ahalbidetzen digun proportzio batean. Lorpen handia izan da gure emaitza globalak "soilik" 10 milioi murriztu izana aurreko urtearekiko, kontuan izanik aurreko ekitaldiarekiko diru sarreren murrizketa 1.900 milioi eurokoa izan zela. Bilakaera horrek adierazten du urte osoan zehar aplikatutako doitze neurriekin asmatu egin dugula.

Bestalde, Industria Arloan egindako inbertsioak 287 milioi eurokoak izan ziren, eta urtean zehar bost jarduera berri merkaturatu ziren. Jarduera arloka, Korporazioko Kooperatiben portaerak, oro har, krisiaren eragina islatu du, sektore batzuetan beste batzuetan baino nabarmenago,

esaterako, eraikuntzan edo kontsumo ondatsun iraunkorretan, eskaera nabarmen ahuldu da.

Aipatu beharra dago agertoki konplexu hau MONDRAGONek eratu zenetik izan duen erronkarik handienetakoa dela, ekitaldiaren beharrei aurre egiteko ahalegin handiak eskatzen baititu eta, aldi berean, Korporazioa prestatu egin behar baita etorkizunerako lehiarako exijentzia berrien aurrean.

Ido horretan, 2009. urtearen ezaugarria izan da doitze nahiz egiturazko neurriak eta neurri estrategiko garrantzitsuak aurreratu izana, kooperatiben lehiakortasuna hobetzeko eta baita baldintza orokorrak hobetzeko ere, krisi honetatik indartuta irteteko. Ahalegin handi horiek aldeko adierazleak erakusten hasi dira dagoeneko, Korporazio osoan bilakaera positiboa izan baita, batez ere urtearen bigarren zatian.

Ahalegin eta neurri horiek argi erakutsi dute, gainera, Korporazioaren garapena bultzatu zuten printzipio eta balioak, batez ere elkartasunari eta interkooperazioari dagozkienak, bizi-bizirik daudela eta funtsezkoak izan direla etorkizunerako prestatzeko prozesua modu eraginkorrean gestionatzeko.

Prozesu horretan, MONDRAGONen funtsezko helburuetako bat hauxe da: enpleguaren sorkuntzaren bideari berriz heltzea, sortu ginenetik konstante horri eutsi izan diogu-eta, nahiz eta ekitaldi honetan lehen aldiz, %8,4ko atzerakada egin dugun aurreko urtearekiko;

hala, Korporazioko Batez Besteko Lanpostuak 85.066 izan dira ekitaldia ixtean. Hala ere, industri enpleguak gora egin du ekitaldiko bigarren seihilekoan.

Korporazioak irmo eusten dio berrikuntzaren eta internazionalizazioa indartzen jarraitzearen aldeko apustuari, horietatik baitira gure zabalakundea sustatzen eta gure lehiarako ahalmena hobetzen jarraitu behar duten ardatz estrategikoak. 2009an zehar, nabarmentzekoa da bi produkzio lantegi berri ireki izana, biak ere Indian; hala, 16 herrialdetan 75 lantegi daukagu, eta 13.400 pertsona lanean. I+G+b arloan, 2009an MONDRAGONek 140 milioi eurotik gora inbertitu zuen, eta nazioarteko ia 70 ikerkuntza proiektutan parte hartu zuen. Aipatzekoa da, halaber, Industri arloan diru sarreraren %20 orain dela bost urte ez zeuden produktu eta zerbitzu berrietatik etorri dela.

Erreferentzia horiek guztiak gure sistema kooperatiboak hain bereak dituen malgutasun eta elkartasun printzipioetan oinarritzen den doitze eta egokitze prozesu baten barruan daude. Urte bukaeran agertu diren zantziek –gure balio bereizgarriekin eta MONDRAGON Korporazioa osatzen dugun guztion konpromisoarekin batera– adierazten dutena da gure lehiarako abantailek indartzen jarraituko dutela eta etorkizunera begira sendotuta irtengo garela.

José M^a Aldecoa



Finantzak Industria Banaketa Ezagutza

Finantza arloa

2009. urtea ezaugarritu duena munduan gertatutako lehen atzeraldia bizi izana da. Atzeraldiaren faserik gogorrena urtearen lehen seihilekoan izan zen; hortik aurrera pulsu ekonomikoa bere onera etortzen hasi zen poliki-poliki, oraindik ere ahultasuna agerikoa bada ere.

Finantza sektorean, arazoak dituzten erakundeek kasuek agertzen jarraitu dute eta horrek, estatuan, Espainiako Bankuak babestutako fusioetan gauzatzera bideratuko korporazio mugimenduak bultzatu ditu. Halaber, balantzeek berreratzen jarraitu dute, eta horrek produkzio ekonomiarako kreditu murrizketak luzatzea ekarri du; baita berankortasuna handitzea eta interes tasak minimo historikoetara lerratzea ere. Horrek guztiak sektorerako kontrakoa den agertokia osatu du.

MONDRAGONeko Finantza arloari ere eragin dio bat ere erakargarria ez den ingurune ekonomiko horrek nahiz eta, horri aurre egiteko, korporazioa osatzen duten negozioak bideratzeko eraginkortasun handiagoko gestio neurriak hartzeko ahalegina egin den.

Banku jardueraren aldagairik adierazgarrienek, hau da, kreditu inbertsioak eta pasibo likidoen kaptazioak, bilakaera lau samarra izan dute, atzeraldi ekonomikoaren ondoriozko geldotasunarekin bat eginez. Haatik, balore merkatuek susperraldi nabarmena izan zuten 2008ko erorialdiaren ondoren; eta horrek mesede egin die arlo honetako erakundeek **inbertsio zorroei**.



Bereziki nabarmentzekoa da familien, profesionalen eta enpresen **finantzaketa errazteko** egindako ahalegina, kredituen eskuragarritasuna eskasa izan den testuinguru batean. Aipagarriak dira Euskadiko Kutxa Likidezia linea merkaturatu izana eta Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzaren Enpresa Txiki eta Ertaintentzako eta Autonomoentzako Laguntza Programan.

2008an **zerbitzuaren kalitatean** lider izan ondoren, 2009ko erronka nagusia aitorten horren mailan egotea izan da, eta erantzuna Stiga agentzia independentetik etorri da, izan ere, agentzia horrek azken 10 urteotako Zerbitzuaren Kalitate Handieneko Erakunde izendapena eman dio Euskadiko Kutxari. Lagun Aro Aseguruak ere nabarmendu egin dira alor honetan, oso balorazio onak izan baititu bai bere bezeroengandik bai konpainiarekin lan egiten duten bitartekariengandik.

Berrikuntzaren atalean, arlo honek hainbat produktu, zerbitzu eta kanal garatzeko hainbat ekimeni heldu dio. Euskadiko Kutxak Aurreikuspen Plan eta Inbertsio Funts bermatu berriak merkaturatu ditu; bestalde, Lagun Aro Aseguru Etxea marketin sari nazionalerako izendatu dute berrikuntza gaietan.

Erantzukizun sozialaren alorrean, Euskadiko Kutxak Enpresaren Erantzukizun Sozialeko Memoria argitaratzeari eutsi dio, Global Reporting Initiative (GRI) edo G3aren espezifikazioei jarraituz, eta eutsi egin dio A+ aplikazio mailari, hots, AENOR, GRI (GRI Checked) eta halako kanpoko egiaztapen erakundeek aitortzen duten gehieneko mailari.

Gainera, lorpen handia izan da, Laneko Arriskuen Prebentzio gaietan, **OHSAS 18001 ziurtagiria** eskuratu izana. Era berean, ingurumen gaietan, 2009an ISO 14001 Ingurumen Gestioko Sistemaren homologazioa berritu egin da. Euskadiko Kutxa aitzindari izan zen sistema hori ezartzen.

Beste aspektu aipagarri bat, dakarren onura soziala dela-eta, 2009an Euskadiko Kutxak **Heziketako eta Sustapeneko Funtsera** 6,6 milioi euro bideratu izana da. Diru hori batez ere kooperatiba sustapenera, prestakuntzara, ikerketara eta kultur eta asistentzia jardueretara bideratu da. Era berean, Lagun Aro Aseguru Etxeak bere mozkinen %3,5 bideratzen du **Lagun Aro-Mirada Social Fundaziora**, hiri jarduketa ildo hauen inguruan proiektu sozialak bideratzeko: herri kirolaren sustapena, kulturarako laguntza eta gizarte ekintza.

Euskadiko Kutxa

Euskadiko Kutxa kreditu kooperatiba bat da eta 1959an sortu zen; beraz, iaz, eratu zeneko mende erdia bete zen.

2009an, Euskadiko Kutxak atzeraldiak jotako testuinguruari egin behar izan dio aurre. Finantza erakundeek bereziki pairatu dute atzeraldi hori, diru sarrera finantzarioak erori egin baitira minimo historikoetan ibili diren interes tasen ondorioz, berankortasunaren handitze orokorraren ondorioz eta sektorearen gaindimentsionamenduaren –sektorea berregituratu beharra ekarri du– ondorioz.

Euskadiko Kutxaren egoera espezifikoari dagokionez, bere **balantzearen** aktibo totalak 21.210 milioi euro ziren 2009a ixtean, beraz, urtean 405 milioi euroko gehikuntza izan da, hau da, %1,9 termino erlatiboetan.



1. Finantza arloa

2009. urteko txostena

Bezeroen gordailuak	Miloi euro
2007	15.879
2008	17.576
2009	18.614

Fondo propioak	Miloi euro
2007	1.523
2008	1.561
2009	1.565

Bezeroentzako kredituak	Miloi euro
2007	15.035
2008	16.576
2009	16.476

Balantzean gestionatutako **bezeroen gordailu totalak** 18.614 milioi euro ziren urtea bukatzean, termino erlatiboetan %5,9ko igoera izan ondoren. Produktuka, ageriko aurrezki gogoko izan dute bezeroek eta MAX kontuak %44,4ko igoera izan du. Aurrezki kontuen zabalkundeak ere aipatzeko moduko bultzada izan du (%11,2). Aitzitik, eperako gordailuek interes tasen beherako joera pairatu dute eta %9,6 murriztu dira.

Bestalde, **bezeroentzako kredituak** mantendu egin dira aurreko urtearekiko; hala, 2009. urte amaierako zifra 16.476 milioi eurokoa izan da, eta hipoteka kredituak %3,7 igo dira. Nabarmentzekoa da Euskadiko Kutxa Likidezia kreditu lineak izan zuen harrera bikaina. Linea hori enpresei eta autonomoei laguntzeko merkaturatu zen eta

hasierako 200 milioi euroko zuzkidura 300 milioiraino igo behar izan zen.

Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren okerragotzea berankortasun indizearen handitzean islatu zen, izan ere, indize hori %2,90ean jarri zen. Maila hori onargarria da eta sektoreko batez bestekoa baino hobea.

Joan zen ekitaldia ixtean **fondo propioak** 1.565 milioi eurokoak ziren eta, Espainiako Bankuaren irizpideen arabera, kaudimen koefizientea, horri dagokionez konputagarriak diren baliabideen bidez kalkulatzeko dena, %11,5ean zegoen; honenbestez, exijitzen den gutxieneko %8 lasai gaintzen zen.

Nazioartean, Euskadiko Kutxak atzerriarekin lotutako jarduerak lantzen ditu mundu osoan barreiaturik dagoen 1.000tik gora korrespontsaleko sare batean oinarrituz. Horrek nazioarteko transakzioekin lotutako 2.500 milioiko negozio zifra gaintzen lagundu du.

Bilakaera ekonomikoari dagokionez, iragan ekitaldian, interes marjinaren bidez neurtzen den negozio tradizionalak %14,6ko igoera izan zuen eta horrek, kostuen arrazionalizatzeko prozesuarekin batera, ordaindu aurreko emaitzak 2008an lortutakoak baino %22,8 handiagoak izatea ekarri zuen.

Hala ere, hurrengo ekitaldietan merkatuan berankortasuna handitu egingo zela aurreikusita, tentuz jarduteko erabakia hartu zen. Hala, komenigarria iritzi zitzaion, izan litezkeen kaudimengabeziatarako, diru hornidura handi bat jartzeari, eta horrek **Emaitza Garbien** azken zifra 56,5 milioi eurora mugatu zuen.

Dena den, **eraginkortasun ratioak**, hau da, ustiapen kostuen eta erakundeak lortutako diru sarreraren arteko erlazioak, bost puntu hobetu zuen 2008arekiko, eta %37,9ra iritsi zen. Sektoreko ratorik onenetakoa izan zen, eta horrek aukera emango du gaur egungo panorama ekonomiko zailari bermeeekin aurre egiteko.

Lagun-Aro, BGAE

Lagun-Aro, SGAEko mutualisten kolektiboa MONDRAGON Korporazioko kooperatibetako bazkideek osatzen dute nagusiki. Lagun-Arok kolektibo horren eta familiarako onuradunen babes sozialean ardatzen du bere jarduera eta Sistema Publikoak daukanaren antzeko hedadura dauka.

Ondare fondoa	Milioi euro
2007	3.898
2008	3.815
2009	4.210

2009ko abenduaren 31n, mutualisten kolektibo hori 142 kooperatibatan ziharduten 30.757 pertsonak osatzen zuten, hau da, aurreko urtearen aldean, 636 pertsona gutxiagok.

Banaketa Sistemak finantzatzutako prestazioen zenbatekoa, epe laburreko prestazioak estaltzen dituen, 78 milioi eurora iritsi da 2009an. Diru hori batez ere honako hauetara bideratu da:

- Aldi Baterako Ezintasunera: 36,7 milioi euro (kopuru osoaren %47).
- Enplegurako Laguntzara: 23,2 milioi euro (kopuru osoaren %30).
- Osasun Laguntzara: 11,5 milioi euro (kopuru osoaren %15).

Erretiro, Alarguntasun eta Ezintasun Iraunkorreko prestazioak –horien estaldura denbora tarte luzeetarako eta mutualista askorentzako bermatu beharra dago– dagokien pentsioak bermatzen dituzten hornidura egokiak sortuz finantzatzen dira. Iragan urtean kontzeptu horiengatik ordaindutako zenbateko osoa 103,1 milioi eurora iritsi zen. 2009ko ekitaldia amaitzean, pentsiodunen zifra 9.226 pertsonakoa zen, hau da, 2008. urtearen itxieran baino 576 gehiago. Halatan, prestazio horri dagozkion etorkizuneko beharrei aurre egiteko Balantzean metatutako saldo positiboa 54,6 milioi eurokoa da.



Kapitalizazio prestazio horiek Ondare Fondo baten bidez bermatzen dira. Fondo hori, 2009aren itxieran, 4.210 milioi eurokoa zen, behin sortutako errendimenduak eta ekitaldiaren

itxierako posizioei aplikatzeko balore doiketak aplikatu ondoren. 2008an gertatu zenaz bestela, balioen merkatuen bilakaera onak oso modu positiboan eragin du 2009an finantza inbertsioetatik lortutako errendimenduan, eta horrek ahalbidetu du Ondare Fondoa 396 milioi euro handitu izana, hau da, %10,4ko portzentajezko gehikuntza izan da ekitaldiaren hasierako dimentsioarekiko.

Enplegurako Laguntza prestazioaren gastua hirukoiztu egin da aurreko ekitaldiko zenbatekoarekiko, egoera ekonomikoa okertu izanaren ondorioz. Sartutako kuotak kontzeptu horrengatik urteko gastua baino txikiagoak izan dira eta 14,9 milioi euroko defizita sortu da ekitaldian bertan, aurrez sortutako erreserbekin estali dena.

Lagun-Aro Aseguruak

Testuinguru ekonomikoa aproposena izan ez bada ere, 2009. urtean Lagun-Arok hazkunde errentagarrian eta iraunkorrean hohera egiteko helburu estrategikoan aurrera egin du.

Hazkunde errentagarria lortzeko, Konpainiak handitu egin ditu bezero segmentuak –familiak barne– beren bizi ziklo osoan; baita autonomoak eta enpresa txiki eta ertainak ere, beren profil eta beharretara egokitutako eskaintza baten bitartez.

Produktuei eta zerbitzuei dagokienez, 2009an hobekuntzak egin dira arlo guztietan. Adibide adierazgarri batzuk aipatzearen, Automobiletan badago itundutako tailer espezializatuen sare handi bat, eta Bidaiako Laguntzarako akordioa berritu egin da IMA Iberica-rekin, eraginkorra eta erantzuna ematen azkarra baita. Bestalde, Lagun-Aro Etxean, konpontzaileen plataforma propioa eratu da, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko aukera emango duena.

Berrikuntzari dagokionez, konpainiak erakunde osoan kultura berritzailea sortzeko helburua jarri du, produktu, zerbitzu eta kanal berriak garatuz. Ekimen hori aintzat hartua izan da hainbat alderditatik. Hala, 2009an, Lagun-Aro Aseguru etxeak Interneteko hamar aseguru entitate onenen artean egoten jarraitzen du, Capgemini-ren arabera; Lagun-Aroren weba, hirugarren urtez jarraian, sektoreko bost onenen artean dago, Actualidad Aseguradora-ren urteko txostenaren arabera; gainera, berrikuntza gaitan marketin sari nazionalerako izendatua izan da.

Garapen komertzialari dagokionez, Lagun-Aro Aseguru etxeak nazioko lurralde osoan presente egoteko lanean dihardu. Ildo horretan, 76 sukurtsal dauka EAEn eta Nafarroan; baita 500 bitartekari baino gehiago ere, EAEn, Nafarroan, Bartzelonan, Valentzian, Zaragozan, Asturiasen, Kantabriari, Gaztela Leonen eta Errioxan beren produktuak eskaintzen ari direnak.



Eta aurten lehen urratsa egin da lurralde osora iristeko helburua lortzeko; izan ere, bitartekaritza sukurtsal bat ireki da Madrilen. Guztira, konpainiak 368.000tik gora bezero dauka.

Konpainiaren beste helburu estrategiko bat Euskadiko Kutxarekin daukan balio erantsi handiko erlazioa indartzea da; hortik etorri da, hain zuzen ere, ACB ligako bi saskibaloitza talde hauek batera babestu izana: Caja Laboral Baskonia eta Lagun Aro GBC. Horrekin, gainera, konpainiak hobeto ezagutzea lortzen da, eta hori mesedegarria da bi negoziok garatzeko.

Edurne Pasaban mendizalea 14 x 8.000 erronkan babestu izanak ere indartu egin du Lagun-Aro markaren presentzia, eta Interneten aplikazio berritzaileak garatzea ekarri du.

2009an, halaber, 2008an sortutako Lagun Aro-Mirada Social Fundazioak bere zereginari eutsi dio. Fundazioaren bidez, Lagun-Aro Aseguru etxeak bere mozkinen %3,5 proiektu sozialetara bideratzen du, hiru lan ildo nagusi hauetan herri kirolaren sustapenean, kulturarako laguntzan eta gizarte ekintzan.

Lagun Aro Fundazioaren “Stop Istripuak: bizitzak aurrera darrai trafiko istripuaren ondoren” azterlana Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren babesarekin argitaratu izana Fundazioaren mugarririk garrantzitsuenetakoa izan da 2009an. Azterlan horri esker, lan ildo berri bati ekin zaio, orain arte ahaztua zegoen kolektibo baten egoera hobetzeko, hau da, trafiko istripua izandako biktimen eta haien familiartekoen egoera hobetzeko.

2009ko enpresa zifra adierazgarrienei dagokienez, esan behar da merkaturatutako aseguru arlo guztietan Lagun-Aro %14 handitu dela, sektorea, batez beste, soilik %1,2 handitu den bitartean. Arloka, Bizitzako aseguruetan hazkundea %34koa izan da eta sektorean, berriz, %5,8koa; Aseguru Ez Bizitzakoetan %6 handitu da, sektore osoan -2,6ko jaitsiera izan den bitartean.

Lorpen horiek berretsi egiten dute konpainiaren martxa ona, iragan ekitaldian 10,4 milioi euroko Emaitzak izan baititu, hau da, 2008an baino %38,8 gehiago. ■

Industri arloa




2009. urtean, herrialde garatu guztiek atzeraldian jarraitu dute. Atzeraldiaren unerik zailenak lehen seihilekoan izan ziren; gerora, halako erantzun positiboa eman zitzaion gobernuak eta banku zentralak aplikatutako pizgarriei.

MONDRAGONeko Industri arloak ekonomia uzkurdura orokorraren eragina izan du eta egoera berriera egokitzeko hainbat neurri implementatuz erreakzionatu du. Horri eta nazioarteko dibertsifikatzeari esker, krisirik apenas jasan duten herrialdeetan egonda, hasieran uste zena baino hobeto igaro da ekitaldia. Halaber, nabarmenki lagungarriak izan dira, batetik, gure errealitate kooperatiboari berez datzekion malgutasuna eta, bestetik, iragan ekitaldiko kontrako koiunturan bazkide kooperatibisten kolektiboak modu arduratsuan egin izana egin beharreko ahalegin eta sakrifizioak.

Eskaeraren ahultasunak ez du bizitasun berdinarekin eragin sektore guztietan, biziagoa izan baita eraikuntzako jardueretan eta kontsumo ondasun iraunkorretan; horiei ekipamendu ondasunak gehitu zaizkie, eskarien zorroak txikitzen ziren neurrian. Aitzitik, bitarteko ondasunek eta enpresa zerbitzuek bilakaera positiboa izan dute, nahiz eta lehenengo kasuan automobilaren sektoreari zuzendutako laguntza publikoei onura aterazaien.

Industri arlo osoak 5.341 milioi euroko **salmenta** zifra lortu du guztira, hau da, 2008an izandako fakturazioarekiko %18,0ko jaitsiera izan da.

Salmenta horietatik, 3.172 milioi euro **nazioarteko salmentak** izan dira, izan ere, salmenta horien atzeraldia (2008arekiko, %-16,3) askoz ere txikiagoa izan da etxeko salmentena baino (%-20,3), zeren eta bigarren seihilekoan europar merkatuak suspertze zantzuak erakutsi baititu, estatuko merkatuak ahul jarraitu duen bitartean. Ondorioz, nazioarteko salmenten kuota, salmenta totalarekiko, %59,4raino iritsi da; beraz, 1,2 puntuko hazkundea izan da 2008. urtearekiko.




Nazioartean, nabarmendu behar da 2 produktio lantegi berri jarri direla martxan atzerrian, zehazki Indian; honenbestez, halako lantegien kopuru osoa 75ekoa da.

Iragan ekitaldiaren itxieran, MONDRAGONeko Industri arloko atzerriko lantegi eta ordezkartzetan 13.400 pertsonak ziharduen lanean guztira.

Egindako **inbertsioak** 325 milioi euroko zifrara iritsi dira, hau da, 2008an egindakoen aldean %43ko jaitsiera izan da; hori eskaeraren atzerakadak eragin du eta, ondorioz, baita instalatutako produktio ahalmena guxtiegi erabili izanak ere.

Batere aldekoa ez den egoera gorabehera, badago ezaugarri positiborik ere: **negozio berrien sustapenak** ez du adorerik galdu eta 2009an bost jardura berri abiarazi da: *EKO3R*, etxeko olio bildu eta birziklatzeko ontzien fabrikazioan diharduena; *Isoleika*, panel isolatzaile termikoak; *Sensia*, uretako



eta elikagaietako bakterioak detektatzeko aparatuak; *Ulma Embedded Solutions*, sistema txertatuak; eta *Ulma Safe Handling Equipment*, diseinu higienikoa duten manipulazio ekipamenduak.

Enpleguari dagokionez, atzeraldi ekonomikoak eta, horren ondorioz, industri produkzioak aurreko ekitaldiarekiko izan duen uzkurdurak eragin nabarmena izan du arlo honetako enpleguan. Ondorioz, urtean zehar okupatutako langileen batez bestekoan 4.361 lanpostuko murrizketa izan da (%-10,7); dena den, ekitaldiaren bigarren zatian berreskuratu egin zen enplegu horren zati handi bat.

Gainbehera ekonomikoak inpaktu mugatua izan du **errentagarritasuna**ren okerragotzean, doitze ziklikoaren zatirik handiena 2008an egin baitzen eta aplikatutako gestio neurriek egoerari atzerakada handirik gabe eustea ahalbidetu baitute. Iragan ekitaldian, Industri Arloko Emaitzak, Kapital Sozialerako ordainketen interesak deskontatu aurretik, 71 milioi eurora iritsi dira; hala, %18ko jaitsiera izan da 2008ko emaitzekiko.

Koiunturak okerrera egin badu ere, funtsezko helburu estrategiko batzuetan aurrera egin da, esate baterako, **berrikuntza**ren aldeko apustu sendoan. 2009an 1.263 pertsona ari zen ikerkuntzan askotariko teknologietan espezializatutako hamabi zentroetan, Mondragon Unibertsitatean eta industri kooperatibetan.

Garaia Berrikuntza Guneari dagokionez, berritasun nagusiak hauek izan dira: *Ikerlanen* labortegia –mikro eta nanoteknologian espezializatua– dagoen eraikina, etorkizunean *IKZ Mikro-guneren* egoitza zentrala izango dena, inauguratzea; eta Mondragon Unibertsitateko *Teknologia Txertatuen Berrikuntza Zentroa* eraiki eta abiaraztea, non, gainera, telekomunikazio jarduerak ere garatuko diren.

Bestalde, Garaia Berrikuntza Guneko pabiloi nagusian korporazioaren Sustapen Zentroa dago. Bertatik abiatu dira, 2009an, *Mondragon Health* eta *Mondragon Energy*, lehenasunezko interesa duten alor haueko jarduerak garatzeko; baita Stirling Zentroa ere, etxerako kosorkuntza elektrikoaren proiektu bat garatzeko, eta *Euskadiko Etxetresna Elektrikoaren Klusterra (ACEDE)*, non kooperatiba ugari dagoen ordezkatuta.

Aipagarria da 2009an kooperatibek I+Gra bideratutako baliabideak 132 milioi euro izan zirela, 2008an izandako mailaren paretsuan.

Prestakuntzan, joan zen urtean 8,3 milioi euro bideratu zen xede horretara. Zifra hori aurreko ekitaldikoa baino %7,8 handiagoa da. Gai honekin lotutako aspektu nabarmengarrienen artean, aipagarria da Heziketa Kooperatiboan 593 pertsona ibili zela 2009an, eta Zuzendarien Garapenerako Gestioan, hala gaitasun pertsonaletan (lidergoa eta talde lana) nola gestio tekniketan, 269 zuzendarik parte hartu zuela.

Laneko Segurtasun eta Osasunean, ezbehar tasa murrizteak funtsezko helburu izaten jarraitzen du; hala, 2009an, 1000 langileko istripu kopuruaren adierazlea %38,8 izan zen, hau da, aurreko urtearekiko hamar puntu baino gehiagoko jaitsiera nabarmena izan da. Alor honetan, azpimarratu behar da 16 industri kooperatibak baduela Laneko Arriskuak Prebenitzeko Sistemen ziurtagiria, OSHAS erreferenteari jarraiki.

Betidanik kooperatiben erantzukizun sozialarekin lotuta egon den beste gai bat ingurunearekiko kezka izan da, eta ildo horretan, merezi du aipatzea **54 kooperatibak** daukala dagoeneko ingurumen kalitateari buruzko **ISO-14000 ziurtagiria**.

Azkenik, esan behar da MONDRAGONek eta Estatu Batuetako industri sindikaturik handiena den United Steel Workersek izenpetutako **lankidetzak akordioa**, izan ere, akordio horren bidez baterako lana egingo da partekatutako balioetan oinarrituz industri kooperatibak sustatu eta enplegua sortzeko.

Kontsumo ondasunak

2009an, MONDRAGONeko Kontsumo Ondasunen sektoreak 1.576 milioi euro fakturatu zuen, hau da, aurreko urtean baino %12,8 gutxiago, eta nazioarteko salmentak totalaren %69 izan ziren.

Etxetresna elektrikoetan nabarmenak izan ziren krisi ekonomikoaren eragina eta krisiak Espainian dituen ondorioak, izan ere, Fagorrek Espainian egiten ditu bere salmenten %33 eta bertan etxetresna elektrikoaren merkatua %15,4 uzkurdu zen –aurreko urtean %18 uzkurdu zen–. Krisiak neurri txikiagoan eragin zion Frantziari, non linea zuriko etxetresna elektrikoaren merkatua %4,4 jaitsi zien; Polonian, berriz, hazkundea %1etik hurbil ibili zen.

Marken portaerari dagokionez, 2009an ekarpen marjinak defendatzea eta marketin nahiz publizitateko aurrekontu oso murriztaileak erabiltzea lehenetsi da eta Espainian %18,2ko kuota lortu da (Anfel-en datuak); Frantzian, berriz, %16,1ekoa (iturria: Gifam) eta Polonian, %8,9koa (iturria: Gfk). Fagor sektoreko bosgarren fabrikatzailea da European, eta kalkuluen arabera, bere partaidetza %5,1ekoa da.

Bere negozio aukeren bilakaerari dagokionez, Fagorrek uste du aliantzen politika faktore giltzaria izango dela bere operazioak habetzeko, ez bakarrik kanpoko merkatuetan. Horren erakus-

garri dira martxan dauden *joint-ventureak*: dagoeneko finkatuta dauden Geyser Gastech, Vaillant alemanarekin, berogailuak fabrikatzeko; eta Shangai Cookware Etxetresna Txikiak, presio eltzeak eta sukaldeko tresneria fabrikatzeko; eta oraintsuagoko Nanking Fagor AOSmith Gas Appliance, galdarak fabrikatzeko; Hangzou Shui Gastech, berriz ere Vaillant eta PTCrekin lankidetzan, gasezko ur berogailuak fabrikatzeko; eta Zao Balam, Errusian, non Mexikoko Mabe-k parte hartzen duen, gama zuriko etxetresna elektrikoak merkaturatzeko, denak ere espero izandako emaitzak ematen hasi direnak.

Berrikuntzaren alorrean, 2008aren erdialdean Fagor Hometek International Ikerketa Zentroa martxan jarri ondoren, 2009an Fagorrek 56 milioi euro inbertitu zuen, 360 pertsona jarri zuen lanean erabateko dedikazioz, berrikuntza zentro propioen partaidetzarekin eta kolaboratzaile teknologikoen sare handi batekin –batez ere Europan–, proiektuak eta ideiak hiru ildo hauetatik gauzatzeko: produktua-funtzioa, teknologia eta sarearen gestioa. Egosketan eta ahokaduran bakarrik, 98 proiektutan ari dira lanean 2009-2012 aldirako; horietako bederatzik kategoria berriak dakartzkio egosketaren munduari.

2009ko merkaturatzeen artean, nabarmentzekoa da “Fagor” markan, Hotzean, TRIO hozkailu berria, temperatura -14 y +14 °C bitartean erregulatzeko gai den hirugarren esparru batekin,



elikagaiak kontserbatzeko baldintzetara egokitzeko. Gainera, hozkailu konbinatu guztiek berritze estetikoa izan dute. Garbiketan, ontzi garbigailuen gama berria, merkaturako ontzi garbigailurik isilenak eta eraginkorrenak, ur eta energia kontsumo txikienekin; goitik kargatzeko Dose arropa garbigailua, detergentez betetzeko biltegi batekin eta garbiketa bakoitzean behar den detergente kantitatea dosifikatu egiten duen gailu batekin, erosotasunaren eta eraginkortasunaren mesedetan; eta

belaunaldi berriko ke kanpaiak, gutxieneko hots mailekin. Horiek guztiak *Effisilent* gaman sartuta daude: eraginkorra eta isila.

“De Dietrich” markan, egosketa arloan, aipagarriak dira, batetik, *Matrics* labe pirolitiko berria, Axiom aginte panel birakari motorizatuarekin, eroso ikusteko eta erabileran erabat ergonomikoa, beltz eta altzairu herdoilgaitz koloreko bertsioetan, eta bestetik, *Entry* gama berriaren merkaturatzea arropa eta ontziak garbitzeko produktuatarako.

Iraunkortasuna lehentasunezko beste jarduketa ardatz bat da Fagorren. Hala, “2009ko Iraunkortasun Memoria” argitaratu du, non konpromiso iraunkorraren alorrean egindakoak biltzen diren. Ahaleginak gestio ereduari –ezaugarri bereizgarria baita lehiakideekiko–, berrikuntza iraunkorrean, pertsonetan eta eraldaketa sozialean zein ingurumen gestioan zentratzen dira.

Altzarien Taldeak (Fagor Altzariak, Grumal, Danona, Coinma eta Gerodan) zuzenki jasan ditu higiezinaren sektorean izandako kolapsoa, izan ere, eskaera %40 baino gehiago jaitsi da. Gainera, jaitsiera hori aurreko urtean izandakoari (%20tik gora) gehitu zaio. Altzarien Talde barruko sinergia proiektuak, hala nola estandarizazioa eta produktuaren sinplifikazioa, industri lantegien espezializazioa, baterako erosketak, merkataritza sinergiak eta egitura murrizketa, adierazitako epeetan gauzatu dira, nahiz eta aurreikusitako helburu kuantitatiboak lortzeko nahikoa izan ez.

Aisia-Kirola taldeak portaera ona izan zuen oro har, Orbearen sendotasunean eta nazioarteko ezarpenean oinarrituz, krisia egon arren.

Orbean, enpresa parametro nagusietan eskuratutako mailari eustea lortu zen, bai salmentetan bai emaitzetan. Era berean, bere nazioarteko garapen positiboa sendotzeaz gain, marka irudia eta erabiltzailearekiko interkonexioa sustatu ditu Interneten eta sare sozialen bitartez, babesten dituen ekitaldien bitartez eta bere talde profesionalekin parte hartzen duen lehiaketan bidez. Berrikuntza arloan, teknika eta diseinu aldetik goi-mailakoa den produktu katalogo bat landu eta merkaturatu du.

Ereduk, berriz, Enea diseinuzko altzarien eskaintza osatzeko aprobetxatu du, nazioartean ospetsu diren Llusca, Lievore eta Teixido diseinatzaileei esker, contract, bulego, unibertsitate, ostalaritza eta instalazio handietara bideratutako gama altuko produktuen katalogo zabal batekin eta nazioarteko ezarpen sendo batekin.

Dikar Wingroup-ek handitu eta garatu egin du bere eskaintza, batez ere kirol armetan, diseinu berritzaile batekin eta kanoia fabrikatzeko aurrerapen teknologiko handia ekarri duten produktzio instalazio batzuen bidez; hala, ikaragarriko doitasuna lortu dute eta, ondorioz, produktuen irudia eta balorazioa oso altua da.

Osasun arloan, aipatzekoa da salmentetan izan den hazkundea eta nazioarteko garapena.

Osatuk berritu egin du bere desfibrilatzaileen katalogoa, produktu berriekin eta prestazio hobeekin. Gainera, bere nazioarteko sarea indartzea lortu du, India, Brasil eta halako merkatu estrategikoetan partner berriak bereganatuz.

Bestalde, Oiarso, nazioarteko garapena ardatz hartzeaz gainera, aurrera egin zuen Kunshango (Txina) ezarpena sendotu eta indartzeko estrategian, jarduera finkatzeko oinarri estrategiko gisa.

Ekipo ondasunak

Ekipamendu Ondasunen sektoreak 976 milioi euro fakturatu zuen; beraz, %15,7ko jaitsiera izan zuen eta nazioarteko fakturazioa –zeina fakturazio osoaren %68 baita–, berriz, %12,9 murriztu zen.

Automatizazioari eta Kontrolari dagokionez, merkatu guztiei eragin zien munduko krisiaren testuinguruan, 2009ko ekitaldia bereziki zaila izan zen Fagor Automationentzat. Aurreko ekitaldian salmenta marka historikoa lortu ondoren, 2009an %40ko beherakada handia etorri zen. Hala ere, berrikuntzaren aldeko apustuari eutsi zion, proiektu guztiak mantenduz eta Makina Erremintaren nazioarteko azokan (EMO), Italian urrian egindakoan, inoiz baino produktu gehiago merkaturatuz. Berritasun horien artean, azpimarragarria da CNC 8065arekin zenbakizko kontrolen belau-naldi berri bat merkaturatu izana; baita 100 kW-eko potentziako buru motorrak eta 30 metro luze izatera irits daitekeen enkoder lineal absolutua ere, merkatuko luzeena. Produktu garapen hauek guztiek nazioarteko eskaerari erantzun ahal izateko aukera eman diote, izan ere, eskaera hori salmenta guztien %85 izan zen 2009an, eta Asia izan zen merkatu nagusia, salmenten %49,2rekin.

Mondragon Assemblyk, Espainiako energia sektorearen arauketan izandako aldaketek eragindako urte baten ondoren, bere nazioarteko posizioan hobera egin zuen panel fotovoltaikoak ekoizteko linea berezien fabrikazioan.

Halaber, osagaien eta osasunaren sektoreetarako lineen hornikuntzan jardun zuen eta merkataritza akordio garrantzitsuak lortu zituen hainbat herrialdetan.

Txirbil Harroketa bidezko Makina-Erremintetan, DANOBAT GROUPEk ekitaldi ona burutu zuen, krisi orokorreko egoeran izan arren. Fakturazioa 248 milioi eurokoa izan zen eta nazioarteko salmentak salmenta guztien %84 izan ziren. Esportazio merkatuen lehen herrialdea Errusia izan zen, eta ondoren Alemania, Txina, Italia eta India.

2009an erakarrirako eskarien artean, Txinarako bi kontratu nabarmentzen dira: bata trenbide sektorerako eta bestea aeronautika sektorerako.

Ikuspuntu teknologikotik, aipatzekoak dira, batetik, material konposatuekin pieza eta egitura handien fabrikazioa automatizatzeko soluzioak, eta bestetik, balio handiko piezak berreskuratzeko prozesua teknika berritzaile baten bidez, alegia, laser bidezko handiagotzearen bidez.



Orobat, 2009an zehar, aurreko ekitaldian hasitako inbertsioak gauzatzen jarraitu zen. Hala, tamaina handiko bi pabiloien eraikuntza amaitu zen, bata trenbide sektorerako bideratua eta bestea kompositzeko piezak fabrikatzeko sistemen lineak muntatzera bideratua.

Bere filialei dagokienez, nabarmentzekoa da Bima-tec-Soraluce eta Danobat-Overbeck alemaniarren eta Danobat-Newall ingelesaren portarea bikaina. Era berean, Pune hirian (India) lantegi berri bat jartzea erabaki zen eta 2010ean erai-kiko da. Produkzio zereginak betetzeaz gainera, lantegiak taldearen sare komertzial handiari salmentetan eta zerbitzuan laguntzeko balio izango du.

Deformazio bidezko Makinetan, Fagor Arrasatek 161 milioi euroko salmentak egin zituen. Zifra hori 2008koa baino txikiagoa da baina nabarmentzeko modukoa da, deformazio bidezko makina erremintaren sektorea krisi sakonean murgilduta baitago mundu osoan. Murrizketa ekonomiko gogor eta globalaren ondorioak beste sektore batzuetan baino geroxeago nabaritu baziren ere, bere sektore naturaletako –automobilgintza, siderurgia eta etxetresna elektrikoen fabrikazioa– inbertsio geldialdia ia erabatekoa izan zen 2009ko bigarren seihilekotik aurrera. Testuinguru zail horretan, Fagor Arrasatek bere bulkada esportatzaileari eutsi zion, eta salmenten %85 atzerriko merkatuetan egin zituen, batez ere Brasil, Errusia, India eta Txinan. Kaptazioak murriztu egin ziren nabarmen, eta zorroaren bolumena ere nabarmen jaitsi zen 2007 eta 2008. urteekin –urte horietan hazkundea itzela izan zen– alderatuz gero. Hala ere, urte bukaeran itzaropenak positibo samarrak ziren, eskaeraren halako susperraldi ahul baten zantzuak igartzen ziren eta.

Ikuspegi komertzialetik, eta krisia hor egonda ere, Fagorrek eskaera esanguratsuak jaso zituen lehen lerroko enpresa hauen eskutik: Galvasud, Stadco, Volkswagen, Daimler, Bahru Stainless, Gonva-rrri, Gestamp, Itatiaia, GKN, Whirlpool, Johnson Controls, Great Wall, Severstal, BMW, Baomit eta Baosteel.

Fagor Arrasatek gastua kontrolatzeko ahalegin handia egin zuen 2009 osoan; horrek aukera eman dio enpresaren eraginkortasuna hobetzeko eta atzeraldi gogorreko egoera honetan emaitza posi-

tiboak lortzeko. Horrek, konpainiaren sendotasuna ez ezik, askotariko gorabehera ekonomikoetara egokitzeko daukan malgutasuna ere jartzen du agerian. Era berean, lan handia egin da dibertsifikazioaren estrategian, Fagor Arrasate merkatuko nitxo berri eta balio erantsi handikoetan presente egon dadin. Horien artean, aipatzekoak dira press hardening-a, profilaketa aldakorra, siderurgia prozesuko lineak, sektore elektrikorako piezak fabrikatzeko sistemak eta forjaketa aurreratua. Berrikuntzaren alorrean, azpimarratzekoa da Negozio guztietan datorren laurtekorako Teknologia Planak landu izana; horretarako, Koniker I+G unitateren laguntza izan du.

Packagingerako makinetan, ULMA Packaging-en salmentek aurreko urtekoak berdindu zituzten ia-ia, koiuntura ekonomiko zaila eta mundu osoko krisia hor egon badira ere. 2009. urtean eraldaketa eta antolaketa lan handia egin da Negozioan.

ULMA Packaging-ek urrats garrantzitsuak egin ditu aliantza estrategikoen bidean, eta sektoreko enpresekin lankidetzak akordioak egin ditu. Gainera, robotika propioaren garapenean ere aurrerapen handia egin da, eta horrek aukera ematen dio produktu galkorrak ontziratzeko soluzio osoen gaineko proiektu handietan mundu osoan lehiatzeko.



Era berean, ontziratze proiektu eta aplikazio berrien garapena lehen mailako bezeroengana hedatzea lortu da, Estatu Batuetako eta Japoniako merkatuetan.

Ontzi termoplastikoen fabrikaziorako **Estrusio Puzte Makinetan**, 2009an eskari falta izan da nagusi Urolan eta unitateen kontratazioan gutxieneko mugetara iritsi da. Hala eta guztiz ere, itzelezko ahalegina egin da munduko azoka garrantzitsuenetan egoteko (Chicagoko NPE) eta proiekturen bat edo beste lortu da uraren eta olioaren sektorean Aljeria eta Hegoafrikarako.

Konformazioa eta Mihizadura, berriz, duela 5 urtetik hona trokelgintzaren sektoreari eragiten dion krisiak baldintzatuta daude. Dena den, aurreko urtean Batzen eta Matriciren arteko indar batzearen ildotik, lehiarako abantaila handia lortu da eta lehiakideen aldean kaptazio maila handiagoa daukate; ondorioz, errentagarritasunari eta enpleguari eutsi diezaiekete.

Galdaketan eta Tresnerian, kaptazio mailek behera egin zuten 2009an krisi ekonomikoaren eraginez, baina 2010erako itxaropentsu egoteko moduan gaude, Loramendi eta Aurrenak enpresek lehiakortasunean lortutako funtsezko hobekuntza dela-eta kaptaziorako errealitate eta itxaropenei nabarmen egin baitute hobera.

Ekipamenduaren eta ganberen eraikuntzaren arloan, sektoreko inbertsio krisiak, hala barne merkatuan nola atzerrikoan, eragin negatiboa izan zuen Fagor Industrialen eta Kideren salmentetan; hala ere, etorkizunaren aldeko apustu indartsuari eutsi zioten, nazioartean beren lehiarako posizioa indartuz eta urtea mozkinekin itxita.

Urte bukaeran, Kidek Kunshanera lekualdatu zuen bere produkzio filiala eta lantegi handiago batean instalatu zen, Asiako merkatuari hobeto erantzun ahal izateko. Bestalde, apirilean Indiako Puneko lantegian produzitzeari ekin zion eta urtearen azken hiletan oso produktibitate onak lor-

tu zituen. Leku garrantzitsua hartu zuen India mendebaldeko merkatuan. Gainera, Moskuko ordezkariak komertziala abiarazi zuen.

Fagor Industrialek, urteko salmentetan %18,7ko jaitsiera izan ondoren, nazioarteko hainbat proiektu sendotzera bideratu zituen ahaleginak (Polonia eta Mexiko), produktu gama berriak garatu eta handitzeko eta materialen kostuetan etengabeko hobekuntza bilatzeko.

Beste sektore batzuetan, ULMA Agrícola "Producto 2 aguas" delakoa garatu zuen, beirazko/Garden Center berotegien merkatu nitxoetarako aplikazio espezifikoekin. Eguzki egituretan, "Estructura Estándar" proiektua merkaturatu zen, hobekuntza handiekin muntaketan, prestazioetan eta kostuetan. Proiektu honetan enpresako departamentu askok hartu du parte eta inplementazioa 2010eko lehen seihilekoan egingo da. Azpimarratzekoa da, halaber, "Linea de Vida" azterlanaren merkaturatzea berotegi egituretan. Bere nazioarteko merkatu nagusiei dagokienez, 2009an merkatu kuotei eustea lortu zuen.

Industri osagaiak

Sektorerako bereziki konplikatuak izan den ekitaldian, Industria Osagaiak 1.574 milioi euro fakturatu zuten, 2008an baino %23 gutxiago. Nazioarteko salmentak fakturatutako kopuru osoaren %67,6 izan ziren.

Automoziorako Osagaietan, 2009ko ekitaldia aurreko urtekoaren alderantzizkoa izan zen. Jarduerak gutxitik gehiagora egin zuen, urte bukaeran krisi aurreko posizioetara iristea lortu zen eta emaitza globalak 2008koak baino hobekiak izan ziren.

Dena den, 2009a urte zaila izan zen, produkzioan murrizketak izan ziren, proiektu berrien sarrean atzerapenak, eta industri jardueraren alor guztietan kostua optimizatzeko programak izan ziren. Aurkako baldintza horiek gorabehera, Fagor Ederlanek oso kontuan hartzeko emaitzekin amaitu zuen urtea.

Ekitaldian zehar General Motorserako Delta proiektua sendotu zen. Fagor Ederlanek munduko horniketaren serieko merkaturatzea egin zuen Europan dituen lantegien bidez eta Asia eta AEBetako produkzio aliantzen bidez, plataformaren horniketara Korean, Txinan eta Estatu Batuetan egiteko. Delta proiektuak erreferente eztabaida ezina bihurtzen du Fagor Ederlan merkatuan aluminiozko mangeta-etxeen fabrikazioan, urteko 1.700.000 pieza hornidura maila batekin.

Proiektuen esleipena asko-asko moteldu bada ere, urtearen amaieran badirudi eskaerak suspertu egin direla, esaterako baterako VL Usurbilen, ContiTeves eta Bosch kaliperrekin, edota PSarako disko eta transmisio osagaietarako egin diren atzipenak.

Fagor Ederlanek etorkizunera begira lanean dihardu. Nabarmendu beharra dago Fagor Ederlan Taldearen eta Lotus Engineeringen artean sinatutako akordioa, autonomia luzeko ibilgailu elektro-nikoentzako bereziki diseinatutako Lotus Range Extender motorra garatu eta fabrikatzeko.

Bestalde, Mapsak bere jarduerari eutsi ahal izan dio, automozioaren sektorean izandako salmenta jaitsiera dela-eta zaila izan den ekitaldi batean.

Maiarren, akabera eta estetika berrien garapena eta aplikazioak gauzatu dira eta bezeroek harre-
ra beroa egin diete; hala, behin urtearen erdialdean krisiak eragindako shocka gainditu ondoren,
eskarien kaptazio prozesua oso kontuan hartzekoa izan da.

Cikautxok aplikazio berrien eta prozesuen produktibitatearen aldeko apustuari eutsi dio. Eskarien
kaptazioa ondo joan da, estrusioaren negozioaren bilakaera aipagarri batekin eta etxetresna elek-
trikoentzako osagaien bilakaera positiboarekin.

FPKrentzako urte bereziki zaila izan da 2009a alderdi instituzionalaren arloan, alemaniar bazkideak
proiektuan planteatutako zailtasunak direla eta. Azkenean, MONDRAGONek erabaki du konpainiaren
akzioen %100 erostea eta jarduera hau kooperatiba bihurtzeko prozesu bati ekitea.

Batz Sistemasek 2009an produzitzeari ekin zion Txina, Txekia eta Mexikoko lantegietan. Hala,
bezeroak dibertsifikatzeko estrategia sendotu zuen. Era berean, aipatzekoa da sektore eguzki-ter-
mikoan sartu izana, zilindro paraboliko eta dorre
zentralentzako egiturazko atalen horniketa egiteko.



Etxetresna elektrikoetarako osagaiak sufritzen jarraitu zuten 2009an zehar, izan ere, 2009. urtea etxetresna elektrikoaren eskaerak erabateko uzkurdura izan dueneko bigarren ekitaldia izan da. Urte gogorra eta zaila izan da, mundu osoan osagaien eskaeraren beherakada areagotu egin baita. Beherakada nabarmen horrek, 2008an izandakoarekin batera, %17ko murrizketa eragin du fakturazioan, nahiz eta merkaturako partaidetza kuota handitu izan.

Osagaien Negozioko hiru lineetatik bat ere ez zen egoera horretatik libratu. Elektronikaren alorrean ere, "itzalaldi analogikoaren" planaren laguntza izanda ere, eskaerak uzkurdura latza jasan zuen mundu osoan eta, ondorioz, fakturazioan %20ko murrizketa izan zen.

Nolanahi ere, urtearen azken hiru hilekoan bilakaera positiboa izan zen salmentetan, Dibisioko negozioerik garrantzitsuenetako batzuetan. Hona hemen hazkunde horren arrazoirik inportanteenak: lehiakide batzuk itxi izana eta 2010eko urtarrietik aurrera europar merkatuan derrigorrez segurtasun arauak ezarri behar izatea gasezko egosketa aparatuetan.

2009an negozio zifra erabat behera etorri arren, produktibitatea gehitzeko eta gastua murrizteko neurriei esker, ekitaldiko emaitzak hobekak izan dira 2008koak baino.

Negozioak munduko merkatuaren errealitate berrira egokituz eta birdimentsionatuz joan diren bitartean, aberastasuna sortzeko aukera ekar dezaketen jarduera berrien aldeko apustu estrategikoa hor dago. Hala, oso modu apalean bada ere, 2009an mikrosorkuntza sistemen lehen salmentak lortu zituen urtebete lehenago inauguratutako EHE kooperatibak. Orobat, 2008. urtearen bukaeran bederatzi kooperatibaren artean sortutako *Stirling* Zentroaren azpiegitura konfiguratu izan zen, 2010ean zehar proiektu zehatzak jorratzeko. Azalerako Erresonantzia Plasmonikoaren teknologian (SPR) oinarritutako kontrol analitikorako sistemak merkaturatzeko prozesuan beste urrats estrategiko bat egin zen, lehenago Genetrix Sweden enpresaren eskutian zegoen Sensia proiektuaren kontrola lortzean.

Era berean, Isoleika S. Coop. kooperatiba misto berria eratzeko lehen urratsak egin ziren. 2010ean kooperatiba hori super-isolamendu termikoko panelak saltzen hasiko da, Eikaren filial gisa.

Jarduera berri hauekin eta datozen hiru urteetan merkaturatu nahi direnekin, gutxi gorabehera 200 lanpostu berri finkatuko dira.

Bridei eta petrolio/gasa prozesatzeko, planta petrokimikoetarako eta energia sortzeko hoditeriako osagai forjatuei dagokienez, ULMA Pipingek ekitaldi ona egin zuen merkatuaren egoerari erantzunez, izan ere, 44 milioi euro fakturatu zuen eta nazioarteko salmentak %89ra iritsi ziren. 2009. urtea erreferentzia ugariaren industrializazioan zentratua egon da eta urrats erabakigarriak egin dira EPC dibisioaren sendotzean, ingeniarietzi zuzenean erantzuteko.

Kobrezko eta aluminiozko eroale elektrikoetan, Ederfil-Becker europar merkatuko aurreneko posizioetan finkatu da, eta krisiaren ondoriozko arazoei bere zerbitzuaren bikaintasunarekin eta lehiakortasunarekin egin die aurre; hala, krisiaren ondorioak gainditu eta ekitaldia ikur positiboarekin itxi du. Gainera, nazioartera orientatzeko asmo sendoa agertu du, bere enpresa ibilbidea sektore honetan hedatzeko.

Garraiatazaileetarako osagaietan, 2009. urtea ULMA Conveyor Components, S. Coop.en lehen ekitaldia izan zen ULMAn integratutako kooperatiba independente gisan. Hausnarketa estrategikoa landu zen, enpresaren egoera berria eta egungo koiuntura ekonomikoa kontuan hartuz, eta hausnarketa horretatik abiatuta, datozen lau urteetarako Gestio Planak eta epe luzerako ikuspegia zimendatzeko oinarriak atera ziren. Hausnarketaren ildoari jarraituz, urtean zehar honakoak landu ziren: Prozesuka Gestionatutako Antolakuntzaren diseinua, Berrikuntza Gestionatzeko sistema baten ezarpena eta giza taldeen berrantolaketa. 8 milioi euroko salmentak izan ziren, salmenta mugatuak, batez ere meatze sektorean berritzeko eta handitzeko proiektuak falta izan zirelako eta biltegien merkaturan inbertsioek behera egin zutelako.

Eraikuntza

Aurreko urteetan Eraikuntzaren sektorean hasitako krisi sakona are gordinago agertu da 2009ko ekitaldian, izan ere, sektorearekin lotutako jarduera guztiei eragin die krisiak, eta berezi-bereziki higiezin azpisektorean oinarritzen direnei edota beren jarduketara espainiar merkatura mugatzen dutenei.

Hala, MONDRAGONen barruan Eraikuntzarekin lotuta dauden negozioen multzoak 974 milioi euro fakturatu zuen, hau da, %78 aurreko urtearekiko. Nazioarteko salmentak adierazitako zifraren %35 izan dira, eta 2008ko ekitaldiarekiko %81.

Oronak eta Electra Vitoriak osatzen duten **Jasokuntza Dibisioak** 517 milioi euroko fakturazioa lortu zuen 2009an (2008an baino %10,6 gutxiago). Zifra hori oso zifra ontzat jo daiteke, kontuan izanik salmenta jarduerari zuzen-zuzenean eragin diola krisi ekonomiko globalak eta eraikuntzaren sektorearen dezelerazio prozesuak, zeinak gure merkatu finkatuenetan inpaktu sakonagoa izan duen.

Enpleguari dagokionez, Espainian azken hamarraldietako konplikatuen artean gogoratuko da 2009. urtea. Testuinguru honetan, Jasokuntza Dibisioa gai izan da 3.719 enplegu finkatzeko; horrek esan nahi du aurreko urtearekiko 148 lanpostu murriztu direla. Enplegu maila horri euste-

ko ahalegin kolektibo eta malgutasun ahalegin handia egin behar izan da jarduera eta pertsonen gaitasunak merkatuaren beharretara egokitzeko.

Errentagarritasuna mantendu bakarrik ez, puntu batzuetan hobetu ere egin da, batez ere bigarren mailako gauzetan barne doikuntzak aplikatzeko egindako ahalegin nabarmen eta aldez aurretikoari esker; eraginkortasun handiagoak lortzeko neurriak implementatu izanari esker; Orona 3G Produktuen eta Zerbitzuen Plataforma berri bat merkaturatu izanari esker; dibertsifikazio geografikoari eta negozioaren dibertsifikazioari esker eta berrikuntzaren aldeko apustu sendo eta jarraitua egin izanari esker.

Gainera, bere zerbitzu bokazioa gero eta handiagoa izaki, aukera ematen ari da geografia eta negozio mix bat sendotzeko, diru sarrera errepikariak eta emaitza jarraituak sortzeko ahalmena duena, baita gaur egungo egoera zailean ere.

2009an aurrerapen esanguratsuak egin dira nazioarteko dimentsioaren sustapenean, non Orona marka ezagutua izaten hasi den bezero potentzial, bezero eta erabiltzaile askoren artean. Ildo horretan, inbertsioak zuhurtasunez eta oso modu selektiboan egin dira Jasokuntza Dibisioaren posizioa eta dimentsionamendua Europan errotuz joateko. Gaur egun, sartzen den 3 eurotik bat espainiar Estatutik kanpokoa da eta 5 enplegutatik batek egoitza zentralekoa ez den hizkuntza batean mintzatzen da.

Eta oroz gainera, berrikuntzak garapenaren oinarritzko ardatz izaten jarraitzen du. 2009an bultzada erabatekoa eta oso garrantzitsua eman zaio berrikuntzaren aldeko apustuari, Donostiako Teknologia Parkea Galarretarantz handitzeko proiektuaren bitartez. Proiektu honekin, uztartu egin nahi dira alor akademiko nahiz zientifikoa berrikuntzari dagozkion ahalmenekin, merkatuak eskatzen duen lasterketa teknologikoan Jasokuntza Dibisioaren posizioa ziurtatu ahal izateko.

108.000 metro koadroko azalera batekin eta 160 milioi euroko inbertsio global batekin, proiektu honek aukera emango du trebakuntza handiko 1.000 enplegu sortzeko, eta espazio fisiko berean



zientzia, akademia eta enpresa alorrak bilduko ditu. Bertan kokatuko dira, azpiegitura korporatiboekin eta ORONaren Sustapen Zentroarekin batera, Orona eic (Orona Elevator Innovation Centre) berri baten instalazioak, Ikerlan-IK4ren ikerketa Zentroaren hedapen estrategiko bat eta Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza fakultatearen egoitza bat, bestelako berrikuntza jarduera eta enpresa batzuek gainera. Azken

batean, sareko berrikuntzaren eta emaitzen ustiapenaren aldeko apustu sendoa, etorkizunera begirako konpromiso gisara.

Obra bereziak, berriz, Jasokuntza Dibisioaren izaera gero eta nazioartekoagoaren isla dira: Espainian, Bartzelonako Metroa, Andaluziako Nanomedikuntza eta Bioteknologia Zentroa Sevillan, Toledoko Ospitale Nagusia eta hainbat metro geltoki Bizkaian; Frantzian, Clermont Ferrand-eko Hiri Igogailua, Hôtel Dieu Ospitalea Le-Puy-en-Velayn, eta Princesse Flore Hotela Royaten; Portu-

galen, berriz, Palace de Vidago Hotela, Foz Côako Arte eta Arkeologia Museoa eta Espírito Santo Ospitalea; eta Erresuma Batuan, Balfour Beatty Construction-Knowsley Schools Live-poolen eta Magnung House eta Saldorf Hospital Manchesterren.

Zalantza barik, urte honetan nabarmendu beharreko obra berezia Bartzelonako Metroa da, aparatu kopuruaren bolumenagatik eta bere aurrekontuagatik. Bartzelonako Metroko 5. Linearen luzapean 25 igogailu, 43 eskailera mekaniko, 4 arrapala eta 12 korridore mugikor instalatzeko GISAK (Kataluniako Generalitatearen mendeko enpresa publikoa) esleitutako obraz ari gara, 17,2 milioi euroko diru kopuruaren truke. Izan ere, Dibisioaren mugikortasun eta irisgarritasun eskaintzari egindako aitorpena izan da, lehiakortasunaren eta ondo egindakoaren adibidea, Premium segmentuan.

Eraikuntzarako sistema industrializatuetan, ULMA Construcciónek 295,7 milioi euro fakturatu zuen eta negozio zifra horren %64 atzerriko merkatutik etorri zen. Kanadako filialaren irekierarekin, nazioartean sendotu



egin da, izan ere, 22 herrialdeetan dauka presentzia zuzena.

Eraikuntza Metalikoetan, Urssak ekitaldi positiboa gauzatu zuen, batez ere espainiar merkatuan daukan lidergo posizioari esker eta nazioartean daukan hedapen eta posizio gero eta sendoagoari esker. Iragan ekitaldian gauzatutako proiektu berezien artean, ho-

nako hauek aipa daitezke: Industria Eraikuntzan, zentral termiko bat Txilen, paper fabrika bat Mexikon eta Petronor (Bizkaia) handitzea; Hiri Eraikuntzan, bere konplexutasuna eta inpaktu mediatikoa direla-eta, aipagarria da New Yorkeko Zero Eremuko Eraikin intermodala, eta Libiako futbol zelai baterako estalkia; eta Obra Publikoan, Kadagua ibai gaineko zubiak eta beste zubi bat Trapagaranen (Bizkaia).

Azkenik, azpimarragarria da 2009an Urssa Energy, SL martxan jarri izana, zeinaren jarduera termoelektrikaren sektorerako egiturak fabrikatzean datzan.

Eraikuntzarako Aurrefabrikatuetan, ULMA Hormigón Polímerok 2009ko Gestio Plana bete zuen. Fakturazioa %100ean eta emaitza positibo bikainekin. Erronka nagusiak arrakastaz burutu ziren. "Kostuen eta Gastuen Doikuntzan", oso jarduketa plan zorrotza diseinatu zen, dirurik ez galtzera eta azken urteetan malgutasunean eta gestio parte hartzailean garatutako esperientzia ahalik eta gehien aprobetxatzera bideratua. "Helburuak Hedatzeari" dagokionez, plana osoz gero gauzatu zen; enpresako pertsonen gestioaren lotzailea izan zen, eta baita lortutako emaitzen bideratzaile nagusia ere. "Negozioen Berrikuntzan" lau negozio aukera berriren prospekzioari ekin zitzaion Polimero Hormigoizko produktuotan: industri garraiorako urraduraren kontrako ukondoak, trenbiderako balizak, eroanbide elektrikoaren kanalizazioa eta eraikuntzarako itxitura industrializatua. "Internalizazioan", Frantzia eta Poloniako filialak finkatu ziren, brasildar merkatuan sartzeko jarduketei ekin zitzaien eta Asiako Herrialdeen nazioarteko erosketak optimizatu eta indartu ziren.

Aipamen berezia merezi du Laneko Istripuagatikoko bajei buruzko datu apartak, 5 kasu baino ez baitzen egon. Datu horrek sendotza ematen dio kooperatiba duela hainbat urte aplikatzen ari den Laneko Arriskuen Prebentziorako politikari.

Hormigoizko elementu aurrefabrikatuen industrializazioan diharduen CTCk %50eko uzkurdu-
ra izan zuen bere negozio zifran; hori hala, enpresa nabarmenki berregituratu behar izan da eta
gorakako eraikuntzarako produktu aurrefabrikatu berritzaile bat merkaturatzea bizkortu behar
izan da. Produktu horren onarpena oso positiboa ari da izaten eta ohiko merkatuetan izandako
atzeraldi gogorra konpentsatu beharko du.

Eraikuntzaren sektorerako zuraren bigarren transformazioko produktuen fabrikazioan diharduen
Lanak, berriz, aurreko urtekoaren pareko fakturazio bolumena lortu zuen, Iberiar Penintsulan
eraikuntzaren sektoreak erorialdi gogorra izan arren eta gainerako Europan jarduera biziki motel-
du arren. Hori hala izan da Czech-Lana filiala sendotu egin delako eta salmentetan aurrera egin
duelako Europa Erdialdean eta Ekialdean, bere katalogoan produktu berriak sartu direlako eta
merkatu berrietan ahalegin komertzial handia egin delako.

Obra Publikorako Makinetan, lehendik ere fakturazioaren jaitsiera nabarmen eta progresiboa
izaten ari zen Biurrarenak minimoetan izan zuen bere jarduera, sektorean bere partaidetza kuo-
tari eutsi bazion ere; hori hala, bizkor ibili behar izan zuen bere katalogoan produktu linea be-
rriak sartzeko, sektorearen krisia dela-eta jasandako negozio zifraren galera dibertsifikazioaren
bidez berreskuratzeko

Azkenik, aipatu behar da Eraikuntza Dibisioak Gesdas Viviendas, S.L. Sozietate berria martxan jarri
duela, kooperatiba erregimeneko etxebizitzak gestionatu edota sustatzeko, jarduera horretan azken
urteetan metatutako esperientzia positiboa jarraituz eta hedatuz. .

Enpresa zerbitzuak

Zerbitzu Profesionaletan, LKS Aholkularitzak errentagarritasun maila bikain bati eutsi ahal
izan zion, nahiz eta diru sarreraren zifran %2ko uzkurdu izan, egoera ekonomikoak eragin han-
dia daukan merkatu batean. Hego Amerikan hedatzeko proiektua sendotzeari eutsi zaio, goraka
datorren merkatu horretan presentzia izateko eta egungo bezeroentzako etorkizuneko zubi buru
izateko.

Egoera dela-eta, aholkularitza arloak etengabe egokitu behar izan zituen enpresei eskainitako
zerbitzuak. Testuinguru horretan, eraginkortasuna eta produktibitatea hobetzeko proiektuak
ugaldtu egin ziren eta, alde erantzira, handitze proiektuak gutxitu egin ziren.

2009ko proiekturik esanguratsuenen artean, hauek dira aipagarri: kate logistikoaren optimiza-
zioa GKN Driviline Zumaia, Sarentzat; eraginkortasun operazionalaren hobekuntza CIE Inyecta-
metalentzat; internalizazio planei buruzko aholkularitza eta planen ezarpena CAFentzat eta Bio-
donostia Institutuari buruzko aholkularitza juridiko orokorra ematea eta eratzea, Berrikuntza +
Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioarentzat.

LKS Ingeniaritzak urte zaila izan zuen, bere jarduera eraikuntzaren eta obra publikoaren mun-
duari oso lotua baitago. Higiezinaren sektoreak aurrekaririk gabeko merkatu erorialdia izan zuen
eta horrek eragin handia izan zuen Eraikuntza, Higiezinari buruzko Aholkularitza eta Tasazio Ne-
gozioetan. Bere jardueraren beherakada nahiko nabarmena izan zen; dena den, sektorearen ero-
rialdia kontuan hartuta, bilakaera positiboa izan zen.

Azkenean, kooperatibaren diru sarrerak, guztira, aurreko urteko diru sarreraren %96an geratu zi-
ren, batez ere Obra Publikoaren portaerari eta GSR kooperatibaren jarduerari esker.

Inportantea da aipatzea azken urteetan nazioartean garatzeko egiten ari den ahalegin handia eta berrikuntzaren aldeko apustu sendoa. Horretarako, honako negozio berriak merkaturatu dira: eraikinen birgaitze energetikoa, ondare historikoaren gestioa, Gesdas (sustapenak gestio-natzeko enpresa) eta bideragarritasun plan berriak abiaraztea, etorkizuneko baliozko proposamenak osatzen laguntzeko.

2009an gestionatutako proiektu zehatzei dagokienez, honakoak nabarmenduko ditugu: KIDER taldearentzako industri lantegia eraikitzeko proiektua Pune-n (India); IKEAren denda berria Alcorcon-en (Madril); Basque Culinary Center Zientzia Gastronomikoen Fakultatea eta Zientzia Gastronomikoen Ikerketa eta Berrikuntza Zentroaren proiektua eta eraikuntza obra gestionatu, idatzi eta zuzentzea Mondragon Unibertsitatearentzat; Iruñerriko Ibai Parkea zabaltzeko Udalaz gaineko Eraginari buruzko Arloko Plana eta eraikuntza proiektua; Pasaiaiko Portua antolatze Plan berezia eta laguntza teknikoa Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Plangintza gaitan Pasaiaiko Portuko Agintaritzarentzat, eta Euskotrenen aldiriko trenaren unitate berrien kanpo eta barne diseinua.



Abantailentzat, bere proiektua sendotzeko urtea izan da, eta 2008ko diru sarreraren zifrari eutsi dio. Dagoen merkatu nitxoa oso espezializatua da, kooperatiba osatzen duten pertsonen prestakuntza etengabe egokitu beharra eskatzen duena. 2009ko proiektuen artean, nabarmentzekoa da AMPOrentzako galdaketarako ereduaren diseinu automatikorako konfiguratzaila eta IRIZAREN autobusak diseinatzeko sistemaren eboluzioa.

Sistemen Ingeniaritzan, Ondoanek distiraz beteriko ekitaldia burutu zuen proiektuen kaptazioan, izan ere, %32ko hazkundea izan zuen aurreko urtearekiko eta horrek zorroa asko handitzea ekarri du, kontuan izanik, gainera, diru sarrerak %10 jaitsi direla. Erabat lehiakorra den merkatu batean, barne prozesu nahiz kostuak egokitu eta proiektu garrantzitsuetan presente egotea lortu du, hala nola: Iberdrola Dorrean eta Arraitz eta Larraskituko tuneletan; Bilbo hegoaldeko metropoli saihebidia, Interbiak-DFBrentzat; Automotive Intelligence Centreren (AIC) instalazioen mantentze integrala Zornotzan; 77 udal eraikinetan kontsumoak eta gestio energetikoa monitorizatzea, Gasso Eudelentzat; Trefiforren partzela zaharreko lurzorua ikertzea, Viviendas de Vizcayarentzat, eta AKEIko zabortegeari ingurumenari buruzko jarraipena egitea, Arrasateko udalarentzat.

Mondragon Informazio Sistemak (MSI) kooperatibak gorabidean datozen sektoreen bultzadari lotutako urte berezia izan zuen eta horrek aukera eman zion diru sarreretan %24 handitzeko. Sektore berriotan sartzeko, barne antolaketan garapen handia egin behar izan du; baita kooperatibako pertsona guztien ahalegina ere. Ahalegin horrek fruitu gehiago eman behar du datozen urteetan.

Bestalde, MSI Mexikok bere jarduerari ekin zion eta MSI Aljeria eratu zen, internalizazioaren eta proiektuentzako tokiko laguntzaren aldeko ahaleginaren esparruan.

Egindako proiektuen artean, aipatzeko modukoak dira honako hauek: Turbokompresoreen estazioa muntatu, instalatu eta kontrolatzea Gas Naturalentzat (Maroko); Alexandriako araztegi baten automatizazioa eta kontrola, Degremont Suezentzat; Dublingo (Irlanda) araztegi baten proiektu elektrikoa eta kontrola egiteko “erabiltzeko prest” proiektua, Dracerentzat; eta Adelaidako (Australia) gatzgabetze planta baten automatizazioa eta kontrola, Acciona Aguarentzat.

Mctelecomek, eroriko librean doan merkatu batean, 2008ko zifrak errepikatu ahal izan zituen, enpresetako telekomunikazioak esternalizatzeko zerbitzuen bultzadari esker eta Energian nahiz Ingurumenean espezializatuko nitxoetan sartu izanari esker. Proiektu garrantzitsuenen artean, hauek aipa litezke: Andasol I eta II Zentral Eguzki-Termikoaren telekomunikazio sistema integrala; IKTen soluzio globala TMC España eraikin berrirako, eta Mondragon Unibertsitateko Arrasateko eta Oñatiko unibertsitate campusetako instalazio elektrikoak nahiz telekomunikazio instalazioak.

Hezkuntza Zerbitzuetan, hezkuntza ekipamenduetan inbertsio publikoak izandako beherakada dela-eta eta Gestio Planean aurreikusitako nazioarteko proiektuak gauzatu ez direla-eta, **Alecopek** %20ko atzerakada izan zuen bere negozio zifran. Hala ere, 2009a negozio berrietara jotzeko urtea izan zen; horra hor, M4Uaren merkaturatzea –presentzia Hego Amerikako Unibertsitateetan– eta enpresei zuzendutako prestakuntza teknikoarekin lotutako negozio berri bat, biak ere 2010ean zehar indarra hartu behar dutenak. 2009ko proiekturik garrantzitsuenen artean, hor daude M4U Proiektua merkaturatzea eta Energia Berriztagarrien Proiektua (Kolonbia-Sena).

Mondragon Linguak 2008ko diru sarreraren zifra errepikatu zuen, baina eraginkortasun handiagoz lan eginez eta, beraz, errentagarritasun hobearrekin. Duela urte batzuk Bilboko eta Donostiako zentroetan egindako apustuak fruituak ematen hasi dira eta itzulpenen negozioan gehikuntza handia gertatzen ari da. Garrantzitsuena zera da: hizkuntzen munduan proiektu garrantzitsu baten zimenduak jarri dira. Mondragon Linguak, besteak beste, EITB Taldearen eta ORONAREN prestakuntza proiektuetan parte hartu zuen; baita Santiago Bideko ostalarien prestakuntzarako Europako proiektuan ere. ■

Banaketa arloa

Arlo honen barruan honakoak daude: Eroski Taldea, txikizkako merkataritza jarduera nagusi duena, non sozietate nagusia Eroski Koop. Elkarte baita; eta Erkop, sozietate partaidetuekin batera nekazaritzako elikagaien sektoreko bost kooperatibak osatzen duten bigarren mailako kooperatiba.

2009ko ekitaldia urte zaila izan da etxeko ekonomientzat eta hori kontsumoaren uzkurdua handi batean islatu da; hori dela eta, banaketa enpresek hobetu egin behar izan dute beren posizioa honako hauetan oinarrituz: eraginkortasun handiago batean, prozesuen optimizazioan, gastu politiken arrazionalizazioan eta abarretan, bezeroentzat prezioak arintze aldera.

Eroski Taldean, ahalegin horiek zazpi gestio arlotara bideratu dira batez ere: banaketa, errentamenduak, mantentzea, energia kontsumoa, gastu orokorrak, publizitatea eta garbiketa, eta





guztira 111 milioi euro aurreztu da. Horrek, neurri handi batean, eskaintako produktuen prezioen murrizketan eragin du.

Hornikuntza sistemen eta kate logistikoaren arrazionalizazioak eta eraginkortasunak, gestioan egindako hobekuntzekin eta hornitzaileen kolaborazio estuarekin batera, aurrezki errealak –kalkuluen arabera, aurrezkion zenbateko osoa 130 milioi eurokoa izan da– trans-

ferituz bezeroak erakartzeko ekimenak abiaraztea ekarri dute eta etengabeko aurrezpena daukaten produktu gamak merkaturatu dira.

Baina aurrezkira bideratutako merkataritza planteamendu hori ez da dendetako produktuetara mugatu, eskaintako zerbitzu guztietara hedatu baita. Telefoniari dagokionez, Eroski/mugikorrek eskaintza berritzaile eta oso lehiakorrek merkaturatu ditu, bai aurrez ordaintzen duten bezeroentzat bai kontratudunentzat.



Bezeroen gogobetetzera eta ongizatera bideratutako beste jarduketa bat hauxe izan da: nutrizio etiketa marka propioko ia 1.800 produktutara zabaltzea. Etiketa hori kolore sistema erraz batean oinarritzen da eta begiz erraz ikusteko informazioa ematen du produktu anoa batek daukan kaloria eta nutriente kopuruaz.

Nutrizioari dagokionez, marka propioko produktuetan trans koipeak kentzeko hartutako konpromisoa betetzen jarraitu da. 2009an, trans koipeak produktu guztietatik kendu dira eta 111 produktu birformulatu da.

2009an zehar, 74 establezimendu berri ireki ziren, batez ere supermerkatu propioak eta frankiziadun autozerbitzuak. Gainera, denda formatuak berritzea bultzatu da,

kontsumitzaileen eskari eta lehentasunetara egokitzeko. Santander eta Terrassako hipermerkatuak denda kontzeptu berri baten inguruan antolatu dira, lau eremu kontuan hartuz: produktu freskoa, umearen mundua, zainketa pertsonala eta etxea. Eremu horietan, ibilbide osoan etengabeko aholkularitza eskaintzen da bezeroen kontsultei erantzuten dieten, laguntza ematen duten eta zalantzak argitzen dituzten profesionalen eskutik. Zerbitzu hori oso positiboki balioetsi dute bezeroek.

Nazioarteko hornitzaileekin erosketak negoziatzeko Alidisekin –Europako hirugarren erosketa indarra, 18.500 dendari zerbitzua ematen diena– duen aliantza estrategikoan, 2009ko apiriletik Eroskik Agenor –aliantzaren adar gestorea– erosketa zentralaren jabetza eta gestioa partekatzen du. Urrats hori eginda, Eroski Agenorreko Administrazio Kontseiluko kide bihurtu da eta, horri esker, nazioarteko erosketa zentralaren gestioan osoki parte har dezake.

Erkop Taldeari dagokionez, hauek izan dira 2009an izandako gertaerarik garrantzitsuenen arteko batzuk: oilanden (broiler txitak) aurrerako hazkuntzarako negozioa merkaturatzea, Agropecuaria Navarrarekin lankidetzan; Vega Mayorrekin (Florette) lankidetzak akordioa sinatzea, elkarrekin IV. gamako entsaladak egiteko, eta Ausolan marka komertziala sortzea, Auzo Lagun Taldea garatzeko.

Osorik hartuta, **Banaketa arloak** 8.478 milioi euroko salmenta gordinak izan ditu guztira 2009an, eta aurreko ekitaldiarekiko uzkurdura %6,5koa izan da. Inbertsio garbiak -14 milioi eurokoak izan dira, aurreko urtean desinbertsioak egin baitziren higiezinetan, ondoren alokairuko erregimenean eta baita estrategikoak ez diren beste zenbait aktibotan ere erabiltzen jarraitu direnak. Epleguan 44.695 lanpostu izan dira batez beste urtean zehar; dena den, zehaztu beharra dago



lanaldi partzialeko eta lanaldi osoko lanpostuen arteko aldea dela-eta, 2009an enplegua, guztira, asko igotzen dela, 53.143 lanpostura, hain zuzen.

Errentagarritasunari dagokionez, Eroski Taldeak 434 milioi euroko emaitza gordin operatibo (EBITDA) batekin itxi du 2009ko ekitaldia, hau da, aurreko urtean baino %8 gehiagorekin. Hala ere, nahiz eta Eroski Koop. Elkartek, Taldeko matrizeak, 103 milioi euroko mozkinak lortu dituen, emaitza globalak -69 milioi eurokoak izan dira, hots, 2008koak %29 gaintu dira. Bestalde, Erkoeko kooperatibek 13 milioi euroko emaitza positiboak lortu dituzte 2009an.

Halaber, nabarmendu behar da **Erantzukizun Sozialeko SA** 8000 ziurtagiria seigarren urtez jarraian berri izana. Oraingo honetan, gainera, 2008an ziurtagiri horretarako onartutako arauak betez lortu da eta kontuan izan behar da arauok askoz ere zorrotzagoak direla aurreko urteetan indarrean zeudenak baino.

Era berean, gai honi dagokionez, aipagarria da Eroskik San Prudentzio Lan Fundazioaren aitortzea ere eskuratu duela, 2009ko Enpresa Jarduerarik Onenen Saria jasota, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren kategoria barruan.

Nabarmendu beharreko beste aspektu bat Eroskik eskualdeetako ekonomiei emandako laguntza da, diharduen inguruan aberastasuna sortzeko Eroskik hartutako konpromisoarekin bat eginez. Ildo horretan, tokiko eta eskualdeko hornitzaileen aldeko apustuari eutsi zaio, eta horren erakusgarri argia dugu 2009an Eroskik eskualdeetako 4.582 hornitzaileari egindako erosketak; guztira, 4.616 milioi euro, aurreko urtean baino %5 gehiago.

Era berean, eskualdeko ekonomiarekin hartutako konpromisoa indartu egin da Eroski dendetan Euskadiko janari produktuak sustatzeko eta beste herrialde batzuetako banatzaileetan produktuon ezarpena errazteko Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat sinatuta.

Gainera, Espainiako Janari Bankuen Federazioarekiko (FESBAL) lankidetzak jarraipena izan du eta lehen aldiz produktu freskoak entregatu dira, horrek ahalegin logistiko gehigarria eskatzen badu ere. Hori dela eta, Eroskik indartu egin ditu hotzeko kateko elementuak eta FESBALein lankidetzan ibili da, produktua azken helburura iritsi arte bikain mantenduko dela bermatzeko. Lankidetzak horren ildotik, 2009an zehar 3.600 tona janari galkor entregatu zaie. ■

Ezagutza arloa

Berrikuntza, Sustapen eta Ezagutzarako lehendakariorde berria MONDRAGONen.

2009ko maiatzaren 15ean, MONDRAGON Korporazioko Batzorde Iraunkorrek Javier Sotilen izendapena berretsi zuen Berrikuntza, Sustapen eta Ezagutzarako lehendakariorde izateko.

Izendapen horrekin, MONDRAGONek Korporazio osoan (Unibertsitatea, Teknologia Zentroak, I+G Zentroak eta Sustapen Zentroa) Berrikuntza, Sustapen eta Ezagutza arloen indartzea gauzatu nahi du, gaitasun guztien aprobetxamenduan eraginkortasun handiagoa lortu eta hori balio bilakatzeko xedez, gaur egungo eta etorkizuneko negoziak indartuz.

Ikerketa eta Ezagutza

Berrikuntza teknologikoa eta prestakuntza MONDRAGONen Ezagutza arloa osatzen duten oinarri-zko elementuak dira.

2009an MONDRAGONek 140 milioi eurotik gora bideratu zuen I+G+b-ra eta horietako 15 milioi Zientzia eta Teknologia Plan korporatiboaren barruan erabili ziren eta gainerakoa, berriz, kooperatiben, teknologia zentroyen eta Mondragon Unibertsitatearen artean.

2009an, balio erantsiarekiko %7,69ko aurrekontua bideratu zen Industria Arloko I+Gra, eta aurrekontu hori kooperatibetako I+G Departamentuen bitartez, teknologia zentroyen jardueraren bitartez, Zientzia eta Teknologia Plan korporatiboaren bitartez eta Garaia Berrikuntza Gunearen bitartez bideratu zen. Korporazioa, osoki hartuta, 705 asmakuntza patenteren jabea da.

Gainera, 18 Cenit proiektutan, 9 Etorgai proiektutan eta Zientzia eta Teknologia Planeko gaiekin zuzenean lotutako nazioarteko 34 proiektutan parte hartzen du eta horietako zazpitan Korporazioko enpresa eta zentroak dira liderrak. Bestalde, Planeko 58 ikerlarik planarekin lotutako gaiei buruzko doktore tesia egin du.

Azkenik, 2009an Industria Arloko salmenten %20 produktu eta zerbitzu berriak izan ziren, hau da, bost urte lehenago existitzen ez ziren produktu nahiz zerbitzuak; ratio hori bikoiztu egin da bost urtean, mundu osoan gure produkzio eta zerbitzu jardueren internalizazio erritmoari jarraituz.

Zientzia eta Teknologia Plan Korporatiboa

2009. urtean, 2009-2012 aldirako Zientzia eta Teknologia Plan berri bat jarri da indarrean.

Planaren helburuen artean, hauek aipa daitezke: Berrikuntza maila altua bultzatzea, erakundearen eragin handia izango duten proiektuen bitartez; funtzionamendu harmonikoan lagundu behar du, enpresen eta eragile teknologikoen arteko lankidetzan, interes komunen Partzuergoak sustatuz, jakintzak transferitu ahal izateko; eta, azkenik, Mondragon Unibertsitatearen eta gure Zentro Teknologikoen jarduerak orientatu, koordinatu eta lerratuko dituen politika korporatiboa zerbitzatu behar du.

2009-2012 aldirako Zientzia eta Teknologia Planak honako gaiei heltzen die: material berriak eta fabrikazio sistemak, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, Energiarako eta Iraunkortasunerako Teknologia, Osasunerako Teknologia, Enpresa Gestiorako Teknologia eta Balioei eta Gestio Parte-hartzaileari buruzko Ikerketa.

Planak I+Gko 22 ildo estrategiko biltzen du, eta 37 kooperatiba, gure teknologia zentro guztiak eta Mondragon Unibertsitatea ari dira ildook lantzen. Bildutako proiektuak Korporazioarentzat arrisku handiena eta norainoko luzeena dutenak dira, denak ere gerora negozioetara eta merkatura transferitzera bideratuak.

Teknologia Zentroak

Ikerlan-IK4, Korporazioaren erreferente historikoa da ikerketaren alorrean. 2009an 20,4 milioi euroko diru sarrerak lortu zituen; horietatik 6,5 milioi ikerketa eta estrategia proiektu propioei zegozkien eta proiektuok Eusko Jaurlaritzak, Estatuako Administrazio Orokorrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Europar Batasunak finantzatu zituzten; 12,5 milioi, berriz, I+G proiektuei zegozkien, enpresekiko kontratupean. Arrasate-Olandixo, Arrasate-Garaia (2009an inauguratutako mikro-nanoteknologiaren laborategi berria) eta Miñaoko (Araba) egoitzetan, 209 ikertzailek eta teknikariek dihardute lanean, eta 54 pertsonak prestakuntzan.

Europar Batasunak, Ikerlan-IK4k TTEA proiektu bat eta 7. Esparru Programako bi proiektu berri onartzea lortu du eta proiektu horiekin finantzaketa metatuz 3,9 milioi euroko zifra lortu du azken



programa horretan. Testuinguru horretan, lankidetzaz handitu egin zen erreferentzia-zko nazioarteko zentroekin eta, horri esker, Ikerlaneko 18 ikertzailek aldi baterako egonaldiak egin zituzten zentro horietan.

Spin-off bidezko enpresa ekimen berrien sustapenaren alorrean, Negozio Plana egin zen eta GIKA Diagnostics delakoa eratu zen, Biotools eta Gaiker-IK4rekin lankidetzan, diagnostiko eramangarriko sistemak garatu eta merkatuari eskaintzeko. Era berean, presioko sentsoreen aplikazioen kontzeptu

balidazioak egin dira 2010ean, Cidetec-IK4rekin, spin-off berri bat sortzeko. Patenteen garapenari dagokionez, 2009an sentsoreekin, mikrosistemekin eta erregai pilekin lotutako hiru patente berri izapidetu ziren, eta mikrosistemekin eta komunikazioarekin zerikusia duten beste hiru patente ari dira prestatzen. Gainera, bi jabetza erregistro egin dira berrikuntza estrategikoko gaietan.

Ideko-IK4 fabrikazio eta produkzio industrialeko teknologietan espezializatutako teknologia zentroa da; hogeit hamar urtetik gorako esperientzia eta 100 ikertzailetik gorako plantilla dauka. 2009an Ideko-IK4k aldaketa handi bati ekin zion antolakuntzan eta gaur egun inplementatua dago dagoeneko; hala, antolamendua egokitu egin da, espezializazioaren bikaintasunaren bidez bezeroari balioa gehitzeko. Bere ikerketa lana zortzi linea hauetan oinarritzen da: transformazio prozesuak, software adimenduna, ikuskatze eta neurketa teknikak, dinamika eta kontrola, makinaren eta osagaien diseinua, mikrofabrikazioa, produkzioaren gestioa eta berrikuntza estrategikoa.

Ideko IK4ren instalazioetan 800 m² -tik gorako bi prototipo tailer dago; biak ere egonkortasun handikoak dira eraikuntza aldetik eta tenperatura kontrolatuta daukate. Horrek aukera ematen du pieza handiak errendimendu eta doitasun handiz fabrikatzeko prozesuei ekiteko, trenbide, aeronautika, eolika eta halako sektore garrantzitsuetarako. Prototipo tailerren barruan, gainera, berriki eraikitako Composite eta Laser teknologiatik laborategiak daude.

Halaber, badago 400 m²-ko laborategi berri bat ere, beharrezko guztiarekin hornitua, ultradoita-sunezko metrologia espazio batekin eta estatu mailan bakarrak diren ekipamenduekin, non ikerketa ildo berriak garatzen ari diren mikrofabrikazioaren sektorean.

Gogoan izan behar da IDEKO-IK4k badituela 12 patente aktibo, horietako hiru Europan hedatuak, eta herri administrazioen programa handi guztietan parte hartu duela erkidegoan, Estatuan eta Europan. Europan, 4 europar proiektu bereganatu zituen eta horietako bitan zentroa da liderra.

Lortek lotura teknologietan diharduen ikerketa zentroa da. 2009an jauzi kualitatiboa egin zuen Euskal Sareko Teknologia Zentroaren aitortpena jasota, eta eraikin berri eta moderno batean –Goierrri Berrikuntza Gunearen egoitza zentrala ere badena– ezarrita. Horrek aukera eman dio Zentroari Materialen Laborategi moderno bat eta laser bidezko sinterizatu selektiboaren bitartez gehitze fabrikazioa egiteko ekipamendu berri bat izateko. Ekipamendu horrek indartu egin du laser bidezko fabrikazio teknologien espezializazioa –non Lortek erreferentzia den–, metalezko pieza pertsonalizatu eta unitarioak fabrikatzea ahalbidetuz.

Lotura prozesuen ikerketa ildoekin zerikusia duten proiektu esanguratsuenei dagokienez, aipatu behar dira, batetik, *Spotlight* proiektua, aleazio arinen osagaietarako soldaduraren industrializazioari dagokiona, eta bestetik, *Realprest* proiektua, industria petro-kimiko eta nuklearrerako prestazio handiko estaldurei dagokiena.

Enpresako I+G unitateak

Automatizazioan eta Optikan diharduen **Aotek** etxearen helburua da Fagor Automazionek garatu eta fabrikatutako produktueta integratutako teknologietan bikaintasun maila lortzea: zerbaki-zko kontrolatan, erreguladoretan eta posizioa hartzeko sistemetan.

2009an, Fagor AOTEK kooperatibak hainbat ikerketa proiektutan parte hartu zuen, besteak beste, FP7ren Chameleon proiektuan, makina erremintetan gailu adimendunak erabiliz makina erreminta balioaniztunak lortzen ahalegintzeko; makina erremintaren sektoreko eEe-ren Cenit proiektuan, 2015. urteko makinen oinarriak jartzeko (Fagor AOTEK eta Fagor Automation liderrak izan dira proiektu honetako “Makina Adimenduna” 2. linean).

Ederteken, Ederlan Talde osoari eragin dion krisi ekonomikoak markatu du urtea; horren ondorioz, baliabide gutxiago izan da beste ekitaldi batzuetan baino.

Mugarri inportantea izan da, eta aipagarria, otsailaren 26an 2009-2012 aldirako Teknologia Plana ofizialki plazaratu izana, Fagor Ederlan Taldeko negozio eta enpresa guztiei zuzendutako aurkezpen baten bitartez. Plana erabiltzaile bazkideetako Ingeniaritzako zuzendari guztiek osatutako talde batek landu zuen Edertekeko langileekin batera eta, kasu honetan, Banproren aholkularitzarekin. Lehen aldia izan da Planak taldearen behar teknologiko guztiak bildu nahi dituela, bost ildo estrategiko hauetan: Berrikuntza Prozesuetan, Material Berriak, Berrikuntza Tresnerian, Produktu Berriak eta Ingurumena.

“Automobil elektrikoarentzako osagaien estrategian” proiektuaren esparruan, urtearen azken hilak “Ranger Extenderrak” markatu zituen. Lan handia egin da, LOTUSEkin lankidetzan, gama altuko automobiletara zuzendutako elektrizitate sorgailu honen fabrikazioan, izan ere, nabarmen hobetzen du automobil elektrikoaren autonomia; hainbeste, non automobil konbentzionalekin aldera daitekeen. Esperientzia baliagarria izaten ari da motor funtzioaren ezagutza sakona izateko, eta horrek jarduera berri bat ekar lezake.

ETIC-Embedded Technologies Innovation Centerek, bere ibilbidearen hasieran, ahaleginak egin ditu 2009. urtean zehar inguruko enprekin proiektuak lortzeko. Eta emaitza hau izan da: ETIC bi europar proiektutan parte hartzen ari da gaur egun (bata Artemis eta bestea ITEA2), Avanza2, Saiotek eta Gaitek programetako proiektu batean, eta baita beste proiektu batean ere, Gipuzkoako Aldundiarekin. Gainera, hainbat proiektu gauzatu dira kontratu pean, Microsoft-ekiko harremanak sendotu egin dira eta lantaldea indartzeari eutsi zaio. Kontuan izan behar da 2009. urtearen bukaeran 7 pertsona ari zela bertan lanean.

Fagor Hometekek bukatu egin du BATERA sareko berrikuntza sistema, zeharkakoa eta nazioartekoa, Fagor Talde osoan ezartzeko prozesua. Produktuaren berrikuntzarako proiektu espezi-



fikoez gainera (Egosketa, Garbiketa eta Hotza), askotariko ikerketa eta aplikazio proiektuak garatu ditu produktuetarako Elektronikan eta Komunikazioetan (erabiltzailearentzako intuiziozko interakzio handiagoarekin), eta Etxeko zerbitzuetan (ServiHome, Linea Urdina).

Termodinamikan eta Energiaren, ahaleginak produktuen funtzioen eraginkortasun energetikoaren ikerketan zentratu dira, esaterako, 2.0 pirolisiaren ikerketan.

Elikaduran, bereziki landu dira kontserbazio eta prestaketa teknologiak, pertsonen osasunaren mesedetan (FoodBask, Tecalfood). Akustikan, dezibelioak eta horien ondorio desatseginak murrizteko soluzio teknologiko berriak landu dira eta arropa garbigailu, ontzi garbigailu eta hozkailuetan aplikatu dira nagusiki. Nabarmendu beharra dago SEILA proiektuaren hasiera, CENIT-Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatiba lider duena- proiektuaren barruan, non etorkizuneko ehunkiak tratatzeko teknologiei buruz ikertzen baita.

Isea Zerbitzu Aurreratuen Berrikuntzarako zentro bat da eta Korporazioko Ingeniaritza eta Zerbitzuetako Dibisioak sustatzen du, garapen teknologikoa indartzeko eta Dibisioaren enpresa garapenera ekarpena egingo dioten negozio eta jarduera berriak sustatzeko.

2009an, ISEAk bere egoitza berria inauguratu zuen "GARAIA Berrikuntza Gunea" Teknologia Parkean, Arrasaten. Azkenean, ISEAko Business Acceleration Center-ak estaldura eman du 8 negozio plan gauzatzeko, Enpresa Zerbitzu Aurreratuen sektorean enpresa jarduera kooperatibo berriak abiarazteko.

Koniker zentro espezializatua da Konformazioan eta Mihiztaduran eta honako alor hauetan dihardu: enbutzioa/konformazioa, ebaketa/puntzonaketa, lauketa, profilaketa, tolesketa/kakoztadura eta galdaketa, transferizazio, mihizatze eta pilatze/despilatze prozesuak.

2009ko jarduketa garrantzitsuenei dagokienez, besteak beste, honako hauek azpimarra daitezke: garapenak eko-prentsetan eta eko-prentsa lineetan, energia biltegitzako sistemak eragintza zuzeneko serboprentsetan, lodiera handiko tenkaketa bidezko lauketa prozesuetarako ekipamendua, ikaragarri gogorak diren materialak ebakitzeko moteltze sistema adimendunak, boro altzairuen beroko konformazioa eta orri meheko panel fotovoltaiakoak fabrikatzeko sistemak.

Maier Technology Center (MTC) piezen eta multzo termoplastikoen ikerketan, garapenean eta dekorazioan espezializatutako zentroa da automozioaren eta etxetresna elektrikoaren sektoreetan. Ingeniaritza konkurrentearen arloan dihardu, bezeroekiko harreman estuan.

2009an, zentroaren jarduna oso bizia izan da, izan ere, 40 proiektu bizi izan dira batez beste, automobil fabrikatzaile guztien ibilgailuen erreferentzietarako. Era berean, PSA eta Renaultekin lankidetzak akordioak egin zituen, eta hala, metalezko estalduren gaineko dekorazioaren ereduak haustera datorren teknologia bereganatu zuen.

Aipagarria da, baita ere, zentroa handitu eta berregituratzeko proiektuaren hasiera, non 1.800 m²-ko eremua egongo den laborategi eta ikerketa aurreindustrialerako gune berrietarako.

Orona eic-en (Elevator Innovation Center), ikerketan jarduteko ahalegina handitu egin da aurreko urteekiko; hala, datozen urteetako erronkei aurre egiteko ORONARI teknologiaren



ezaguera egokia izatea ahalbidetuko dioten jarduketa ildoak bultzatu dira, hots: material berriak igogailu arinagoak lortzeko; marruskadura eta galera mekanikoak murriztea; motorren eta trakzio sistemen konfigurazio berriak, erosotasunera eta eraginkortasun energetiko nahiz bolumetrikora bideratuak; erabiltzaileari egokitutako algoritmo eta sistema elektroniko adimendunak, kontsumoa minimizatzen dutenak; eta mantentzean nahiz

zerbitzuan bikaintasuna lortzera bideratutako produktu, sistema eta prozesuak. Jarduera horiek guztiak etorkizuneko igogailuaren giltzarriak dezifratzen diharduen NETOLIFT proiektuaren esparruan lantzen dira, jasokuntzaren sektoreko estatuko enpresa nagusiak biltzen dituen partzuergoan.

2009an, ORONAREN Berrikuntza eta Sustapen Gunearen proiektua abiarazita, beste urrats bat egin da berrikuntzaren aldeko apustua sendotzeko. Donostiako Teknologia Parkearen zabalkundean egongo da kokatuta, Galarretako eremu geografikoan (Gipuzkoa). Zentro berri horren helburua da alor akademiko eta zientifikoa gure berrikuntzarako gaitasunekin uztartzea, merkatuak eskatzen duen lasterketa teknologikoan gure posizioa bermatzeko.

ULMA PTC (Packaging Technological Center) zentroan, 2009a jarraipen urtea izan da plazaratutako urte anitzeko proiektuetan (CENTI, ETORGAI, espezializazio eta kaptazio teknologikokoak, eta halakoak); gainera, gastuari eutsi egin zaio eta estrategikoak ez diren proiektu berriak ez dira abiarazi. Ohi denez, Ingeniaritzak eta Lineek eskatutako garapen planei laguntza eman zaie, Negozioaren premiei erantzuteko. Aipamen berezia merezi dute kargatzeko eta deskargatzeko robot propio integratuen garapenak, TFS termoformatzaileen gama osoak eta hornitzaile desberdinen ekipamenduak integratzea ahalbidetzen duen motion control propioak. Ingeniaritza arloan, nabarmentzekoa da HISPAC Azokan errobotika propioarekin egindako lehen automatizazio aplikazioak aurkezteko egindako ahalegin handia. Sistema txertatuak aplikatzeko proiektuan aurrera egin da, sistema horien makina bidezko lehen kontrola osatu arte, erabat higienikoa den diseinu batez egindako karkasa baten barruan. ULMA Packaging eta UPTCko diseinatzaileentzako PDMA ezarri da eta hura optimizatzeari ekin zaio. Industri jabetzaren atalari dagokionez, 5 patente berrietarako eskariak aurkeztu dira.

1. Ezagutza arloa

2009. urteko txostena

MONDRAGONeko zentro teknologikoak eta I+Gko Unitateak 2009

Izena	Aurrekontua (milioi euro)	Pertsonak
Aotek	2,3	37
Edertek	3,7	28
Etic	0,5	7
Hometek	3,4	37
Ideko IK-4	7,2	108
Ikerlan IK-4	19,2	263
Isea	0,7	10
Koniker	1,9	26
Lortek	3,1	34
MTC	6,1	101
Orona eic	2,1	49
UPTC	3,5	42
Guztira	53,7	742

Garaia Berrikuntza Gunea

Ia 10 urte bete dituela, 2009an Garaia Berrikuntza Guneak handitze mailari eutsi dio bere garapen prozesuan eta horren lekuko dira, batetik, Ikerlan-IK4k mikro eta nanoteknologieta espezializatutako laborategi berri bat martxan jarri izana eta, bestetik, Goi Eskola Politeknikoaren Elektronika eta Sistema Txertatuen Berrikuntza Teknologikoko Zentroa eraikitze obren martxa ona. Aurreikusten da Zentroak 2010eko laugarren hiruhilekoan ekingo diola bere jardunari.

Hamarraldi labur baina bizi horri buruzko datuek adierazten dutenez, Garaia Berrikuntza Gunearen garapen prozesuaren aldeko apustu sendoa egin da, eta indartsu dago. Dagoeneko 425etik gora dira Garaia Gune inguruan interakzioan dabilzan pertsonak, eta enpresek, teknologia zentrotik eta laborategiak –denak batera hartuta– 30 milioi eurotik gora fakturatu dute 2009an. Inbertsioak 3 milioi eurotik gorakoak izan ziren eta I+Gko gastuek alde handiz gainditu zuten 5 milioi euroko kopurua.

Era berean, Garaia Berrikuntza Guneak egindako zuzeneko inbertsioak eta enpresek, Teknologia Zentrotik eta Mondragon Unibertsitateak eragindakoak 90 milioi eurotik gorakoak izan dira.

Honenbestez, esan daiteke sortzezko helburua, alegia, unibertsitatearen, teknologia zentrotik eta enpresen arteko kolaborazio emankorra ezartzekoa, inoiz baino protagonismo handiagoa hartzen ari dela. Izan ere, Garaia Berrikuntza Gunea eraldaketarako eragile giltzarri bihurtu da epe luzerako ikerketan jauzi kualitatibo garrantzitsua egiteko, enplegu kualifikatuen sorkuntza bultzatzeko, enpresa berriei jarraipena egiteko eta egitura ekonomikoa dibertsifikatzeko.

Prestakuntza

Mondragon Unibertsitatea

2008/09 ikasturtean, graduco titulazioetan guztira 3.099 ikasle zeuden **matrikulatuta**, eta graduondoko eta hirugarren zikloko matrikulazioak 395 izan ziren.

2008/09 ikasturtean, Mondragon Unibertsitatea bere titulazio gehienak Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrura egokituta eskaini dituen lehenengo euskal unibertsitatea izan da. Arlo



teknikoan, Goi Eskola Politeknikoak, Arrasateko eta Goierriko campusetan, Ingeniaritzako 5 gradu eskaini ditu, baita bigarren zikloko 5 titulazio ere. Enpresa Zientzien Fakultatea ere aitzindari izan da egokitzapenean, Enpresa Administrazio eta zuzendaritzako graduco eskaintzarekin; gainera, lizentziaturako bigarren zikloa eskaintzen du, eta Zuzendaritzako Idazkaritzako titulua ere, Oñatiko eta Bidasoako campusetan; Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak, berriz, hezkuntzari eta

ikus-entzunezko komunikazioari lotutako 8 titulazio izan ditu.

Halaber, Mondragon Unibertsitateak hiru diplomatura bikoitz eskaini ditu: Industria Ingeniaritzako 2, Nantesko Ecole Centralekin eta Tolosako INSArekin, eta Automatika eta Elektronikako Industria Ingeniaritzako beste bat, Tolosako ENSEEIHTekin.

Horiez gain, 2008/09 ikasturtean gainerako titulazioak egokitzeko lana egin da eta, horri esker, 2009/10 ikasturtean, titulazio guzti-guztiak Europako antolamendu berrira egokitu ahal izan dira. Gainera, aipa daiteke guztiz berritzailea den titulazio bat jarri dela martxan, "Lidergo Ekintzaleko eta Berrikuntzako Gradua": titulazio hori berrikuntzara eta ikaslearengan espiritu ekintzailea sustatzera zuzenduta dago erabat.

Graduondokoari dagokionez, 2 ikastaro berri ezarri dira, eta ikasturte honetan martxan jartze-ko titulu berriak diseinua landu da; horien artean nabarmen daiteke Enpresa Berrikuntzako eta Proiektu Zuzendaritzako Unibertsitate Masterra. Guztira, 24 dira titulu ofizialak eta graduondokoak, eta horietan, etengabeko prestakuntzako ikastaroekin batera, 20.000 prestakuntza ordu baino gehiago eman dira.

Nazioartekotzearen eremuan, ikasleen zein irakasleen mugikortasunak nabarmen handitzen jarraitzen du. Gero eta ikasle gehiagok egiten dituzte karrera amaierako praktikak eta proiektuak atzerriko unibertsitateetan eta/edo enpresetan. 2008/09 ikasturtean zehar, guztira 194 ikasle izan dira.

Mondragon Unibertsitateko I+Gko jarduerak jakintza berria sortzetik harantzago joan nahi du, izan ere, ematen dituen karreretako prestakuntzan eta eskatzen duten erakunde eta enpresei ematen dizkien berrikuntza zerbitzuetan, jakintza hori helmugako arloan edo eremuan aplikatzea lortu nahi du. Finean, unibertsitateak ulertzen du bere hiru jarduerak integratzea, hau da, irakas-kuntza, ikerketa eta transferentzia integratzea dela modurik eraginkorrena bere hezkuntzaren kalitatea handitzeko eta bere konpromiso soziala betetzeko. 2008/09 ikasturtean, Mondragon Unibertsitateak jarduera ikertzailea bultzatzen jarraitu du bere 10 ikerketa ildoetan, eta horrek esan nahi du irakasleek I+G+Bari batez beste eskaini dioten dedikazioa %35 inguru izan dela. Jarduera ikertzaile horrek guztiak hirugarren zikloa bultzatzea ere ekarri du, 21 doktore tesi irakurri direlarik, eta doktoregaien kopurua handiturik.

Halaber, aldizkari espezializatueta gutxi gorabehera 100 artikulua argitaratu dira, eta 89 biltzarretan ponentziak aurkeztu dira, estatu mailan zein nazioartean. Unibertsitateak, gainera, 2008/09 ikasturtean 16 biltzar antolatu ditu zenbait jakintza arlori buruz.

Ekintzaitzaren eremuan, orain dela 3 urte Mondragon Unibertsitateak plan integral bat abiarazi zuen, MONDRAGON EKITEN, ikasleen eta irakasleen artean ekintzaitza sustatzeko, enplegua sortzeko eta lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin, enpresa proiektuen sustapenaren bitartez.

Bai 2008/09 ikasturtean ekintzaitza sustatzeko antolatu zen antolatu zen III. Topaketa, bai Enpresa Ideia Berrien III. Lehiaketa, bai Landa Garapen Iraunkorrerako Ideia eta Proiektuen I. Lehiaketa MONDRAGON EKITEN ekimeneko parte dira; azken hori, Debagoieneko eta Debarreneko landa garapenerako agentziekin lankidetzan egin da. Mondragon Unibertsitateko 300 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute III. Topaketa horretan, hau da, II. edizioarekin alderatuta, partaidetza %50 igo da.

Halaber, abenduan eta apirilean, Unibertsitateak bi jardunaldi antolatu zituen, Finlandiako *Team Academy* ekintzaitza unitatearekin lankidetzan; izenburua Ametsen Ekaitza izan zen, eta gazteen artean ekintzaitza bultzatzea zuten helburu. Bi jardunaldiak oso arrakastatsuak izan ziren, hurrenez hurren 350 eta 500 euskal ikaslek parte hartu baitzuten, eta estatuan *Team Academy* metodologia erabiliz egiten den horrelako ekitaldietan lehenengoa izan zen; unitateko ideak nazioarteko aditu nagusiak dira berrikuntzari eta ekintzaitzari dagokienez.

Mondragon Unibertsitateak beste zenbait proiektu estrategikori ere ekin die 2008/09 ikasturtean:

- Basque Culinary Center, zeina 2009ko martxoan eratu zen ofizialki. Proiektua unibertsitateak bultzatu du, bestelako zenbait eragile instituzionalekin eta sozialekin batera, horien artean izanik Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa eta entzute handiko 7 euskal sukaldari.
- Enpresa Zientzien Fakultatearen campus berria: obrak 2008/09 ikasturtean hasi dira, Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hirian kokatu da, eta 2010eko irailean egongo da operatibo. Azpiegitura horrek bi eremu hartuko ditu bere baitan: alde batetik, enpresa kudeaketaren arloko prestakuntza, bai graduakoa bai graduondokoa, eta, beste aldetik, kudeaketa aurreratuko ikerketa jardura, MIK ikerketa zentroarekin lankidetzan garatzen ari den proiektu komunean oinarrituta.
- Elektronika eta sistema txertatuetako ikerketa eta berrikuntza teknologikoaren zentroa; obra hauek ere 2008/09 ikasturtean hasi ziren. Helburua elektronikaren arloan ikertzaile eta transferentzia teknologikorako talde bat garatzea da, energiari eta sistema txertatuetan aplikatzeko.
- Ingeniaritzako eraikin berria, Goierriko campusean, ikasturte honetan inauguratua: Berrikuntza Gunean dago, eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak eta Lortek hartzen ditu bere baitan; Lortek loturako teknologietan espezializatutako ikerketa zentroa da, Euskal Herrian aitzindaria da, eta, horrekin lankidetzan arituz, Unibertsitateak eta Goierri Fundazioak inguruneko enpresek loturako teknologietan dituzten beharrei erantzun nahi diete.

Beste prestakuntza zentro batzuk

Politeknika Ikastegia Txorierri ikastetxeak 375 ikasleri eman zien arreta 2008/09 ikasturtean, irakaskuntza arautuaren barruan, eta prestakuntza okupazionalerako eta etengabeko prestakuntzako 43 ikastaro eman zituen (2.698 ordu); azken horietara 446 pertsona joan ziren, gehienak lanean ari diren langileak. Zentroaren lan poltsak 165 enplegu eskaera kudeatzen lagundu zuen, inguruko enpresei zuzenduta.

Nazioartearen eremuan, 14 ikaslek Europako enpresetan egin zituzten praktikak (Holanda, Erresuma Batua, Italia eta Bulgaria). Halaber, berrikuntzaren transferentziarako CATEL (*Cultural Awareness in vocational Training through E-Learning* izeneko proiektua estatu mailan Leonardo Da Vinci Agentziak errekonozitu dituen 27 proiektuetakoa izan da: 226.546 euroren diru laguntza izan du, hurrengo bi urteetan garatzeko, Europako beste lau zentroekin elkarlanean (Alemania, Turkia, Estonia eta Belgika).

Ekintzaitzaren kulturaren eremuan, zentroak hitzarmen bat izenpetu zuen Ingurumen Kimikako zikloko ikasleek sustatutako Ardolan enpresarekin, eta, hitzarmenaren bitartez, hainbat lokal eta ekipamendu jarri dira erabilgarri, hasierako urteetan ingurumenari buruzko aholkularitza lanak eta analisisien laborategikoak egiten laguntzeko.

Politeknikoa izan da Parekatuz sarean sartu den hirugarren zentroa, gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren alde, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuta; bere helburua da orientazioaren prozesuan generoaren perspektiba integratzea, horrenbestez, emakumeak Lanbide Heziketako ikasketetan presentzia handiagoa izan dezan.

Azkenik, zentroa Bizkaiko Ikastolen Federazioan sartu dela adierazi behar da, baita ere Federazio hori kooperatiban sartu dela, bazkide laguntzaile gisa; horrek guztiak laguntza ekarriko du Lanbide Heziketa euskalduntzeari dagokionez, eta, ondorioz, enpresak euskalduntzeari dagokionez ere.

Lea Artibai Ikastetxean, 2008/09 ikasturtean aipatzekoa da 2013 Esperantza proiektuko helburuak betetzea lortu zela, 11 jarduera berri sortu baitziren; ondorioz, guztira 31 jarduera berri sortu dira, eta 65 lanpostu berri. Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da baita ere berrikuntza eta sustapenerako nukleoaren inbertsioa hasi dela, lehenagoko Esperantzan kokatuta, eta amaitzeko puntuan dagoen 3.000 m²-ko instalazio berrien eraikuntza.

